

ARGIA

COPEL

Preso sozialek espetxeak astindu zituztenekoa

ELKARRIZKETA FUNDATZAILEETAKO BATI

24-30. orrialdeak



2.906 | 2025 / 02 / 23 | 4 €



**“Ahal bezain aske
izan nahi dut”**

14 | LA FURIA



**“Makroproiektuak
gelditzen dira,
borrokatzen bada”**

31 | FRANCISCO VAQUERO



LARRUN #304
Aroztegia auzia



Jertsea **32€**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosten duzun produktu bakoitzarekin, ekarpen ekonomikoa egiten diozu Mbolo Moye Doole elkarteari. Batez ere Senegaldik etorritako migratzailez osatutako Bilboko kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | IKER IRAOLA
- 20 | SONIA GONZÁLEZ
- 21 | KARMELE GISASOLA
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | BEÑAT MUGURUZA

Finkoak

- 40 | KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: **VIRUS ARGIALETXEA**
KOLOREZTAKETA: **DANI BLANCO**

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

**31 | MAKROPROIEKTU
"BERRIZTAGARRIEN"
DOKUMENTALAREN EGILEARI
ELKARRIZKETA**

Francisco Vaqueroren (Extremadura, Espainia, 1985) *Bizitza ez-berriztagarriak* dokumentala aurkezten ari da Euskal Herriko hainbat herritan. Eoliko edo fotovoltaikoekin bizitzea tokatu zaien herritarrei eman die ahotsa.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Mozambiken kontratatu zituen militarren torturak isilpean gorde ditu Total multinazionalak

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | LA FURIA

"Cascante Euskal Herria bada, zergatik ez dira jotak euskal kultura?"

Danele Sarriugarte

24 | GIZARTEA

"COPELen leloa argia zen: Amnistia ala ihesa"

Zigor Olabarria

36 | NAZIOARTEA

Kontrainformazioak haizea alde du

Rafael Poch / Cntxt CC-BY-NC

46 | KULTURA | POMADA BANDA

Eraikitzen ari garenaren definizio bat

Leire Vargas

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Mikel García, Onintza Irureta, Unai Lomana, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartziandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X
Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekina batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

EKOEDIZIOAREN INSTITUTUKO
bazkide da ARGIA

OLATUKOOP
Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide gara



TORTURA
AITORTZEKO
GARAIA DA



EUSKAL
HERRIKO
TORTURATUEN
SAREA



Itziarren semea?

la mende batez, Euskal Herrian ez da belaunaldirik tortura ezagutu ez duenik. 1960tik 5.379 lagun dira ofizialki, baina askoz gehiago dira, publikoki torturatu gisa agertzeak min egiten duelako oraindik ere. Eta seguruenik, oinarri-oinarrian ez delako ezer aldatu. Polizia guztiek –gurea ei dena barne–, epaileek, mediku forentseek, agintean izan diren indar politikoez, eta kazetari eta hedabide askok egin dituzte posible elektrodoak eta bortxaketak. Makineria

horrek koipeztuta jarraitzen du, eta arduradun askok –Espainiako barne ministro Marlaska kasu– botereguneetan diraute, goxo, gezurretan eta zigorgabe. Bizi gaituen sistemaren egiturak alda gabe nekez desagerraraziko dugu torturaren mamua, Espainiako demokraziaren gezurra torturatuen oihuen gainean eraikita dagoelako. Gaur egun ere entzun ez ditzagun. Itziarren semea ez da existitzen. Antolaketa, elkar zaintza eta egia, ordea, bai.

EHUko irakasle bat salatu dute ikasleak jazartzea leporatuta; klaseetatik alboratu dute behin-behinean

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Bada irakasle bat Gasteizko Letren Fakultatean, Filologia Hispanikoko karreran, ikasleriari mota guztietako jazarpenak egiten dizkio, bereziki psikologikoa". Hori da *Denuncias Euskal Herria* kontuan agertutako lehen salaketaren hasiera, otsailaren 3koa. Salaketaren arabera, irakaslea, besteak beste, "beti ari da ikasleengana hurbiltzen, eskuetatik heltzeko, eskua gerritik pasatzeko eta beste. Baina kezagarriena da ikasleak bulegora deitu eta txeko oso bat egiteko ohitura duela, 'birjina zara? Nola duzu autoestimua?' moduko galderekin". Orduetik, irakasle beraren aurkako beste hainbat salaketa argitaratu dituzte Instagrameko kontuan.

Instagrameko lekukotasunetan, irakaslearen ustezko hainbat portaera errepikatzen dira: ikasleei bizitza pertsonal eta sexualaz galdetzea, laztanak eta ukituak egitea, gazteen zaugarritasuna bilatu eta horren aurrean jarrera lagunkoia erakustea, edo harreman oso estuak bilatzea, espazio akademikotik kanpo ere.

LEKUKOTASUN GEHIAGO JASO DITU ARGIAK

ARGIAk Filologia Hispanikoa egin duten hiru ikasle ohirekin hitz egin du, eta kasua ezagutzen duen laugarren pertsona batekin, bakoitzarekin aparte. Laurek eman dute izen bera kazetariak aurrez aipatu gabe: Juan de la Cruz Ramos.

2010eko eta 2020ko hamarkadetan izan dute irakasle De la Cruz ARGIArekin hitz egin duten ikasleek, ia hamar urteko aldearekin. Bertan deskribatzen diren portaerekin bat datozen lekukotasunak eman dituzte. Horietako batek pertsonalki jasandako sexu eraso bat salatu du. Filologia Hispanikoko ikaslea edo irakaslea ez den baina kasua ezagutzen duen pertsona batekin ere hitz egin du ARGIAk. Ziurtatu du kasua "*vox populi*" dela fakultatean "urte asko direla" (irakaslea 2002an hasi zen Gasteizko Letren Fakultatean klaseak ematen).

ARGIA salatutako irakaslearekin harremanetan jartzen saiatu da, bere hi-



Ikerketa bat egin bazen, zein izan zen emaitza? Hartu al zen neurririk?

tzak jasotzeko aukera emateko, baina ez du erantzunik jaso.

URTEKAKO JAZARPENA ETA AURRETIKO SALAKETA

Instagrameko salaketetako askok irakaslearen portaera orokortua zela adierazten dute. ARGIAk bere kabuz jasotako lekukotzek ere gauza bera iradokitzen dute. GUET Gasteizko Unibertsitateko Emakume Taldea Laia Alduntzin eta June Egino elkarrizketatu zituen ARGIAk. Azaldu zuten aste bakarrean "hamarnaka" salaketa jaso dituztela, sexu erasoak tartean, eta hainbat urtetakoak.

Instagrameko bi salaketan arabera, irakaslearen aurkako salaketak eta kexak aurkeztu zituen norbaitek edo norbaitezuek, baina horrek ez zuen ezer aldatu. De la Cruzen ikasle izan ez den laugarren pertsonak ziurtatu du irakaslearen aurkako salaketa 2019an aurkeztu zutela ikasleek.

EHUK IRAKASLEA ALBORATU DU

"Errektoretza Taldeak kasuaren berri izan zuen unetik bertatik, abian da protokoloak zehazten duen prozedura. Unibertsitateak hainbat salaketa formal jaso ditu", adierazi zuen EHUko Errektoretza Talde berriak asteazkenean, ARGIAk albistea argitaratu zuen egun berean. Ostiralean, behin-behineko erabakiaren berri eman zuen: "Unibertsitateak baieztatzen du salatu duten irakaslea jada klaseetatik at dagoela eta ez dela fakultatera joango kasua argitu arte".

ETA AURREKO SALAKETAREN KUDEAKETA?

Izan ere, gauza garrantzitsu batek jarraitzen du argitu gabe afera honetan guztian. Irakaslearen aurkako salaketa formala aurkeztu bazuten ikasle batzuek, eta ikerketa bat egin bazen, zein izan zen emaitza? Hartu al zen neurririk? Hartu baziren, eta kontutan izanda ikasleen arabera irakasleak portaera "desegokiak" izaten jarraitzen zuela iragan astera arte, zeintzuk izan ziren neurri horiek eta zer jarraipen egin zaie urteotan?

Salaketa edo lekukotasun bat eman nahi izanez gero: salaketak@argia.eus. ●

MOTZEAN

Haurdunaldian edo haur jaioberriarekin diren emazte bakartuentzat, harrera-leku bat proposatuko du La Maison des Sept Vallées elkarteak Donibane Lohizunen. Ideia da "trantsizio" gune bat izatea; gehienik urtebeteko egonaldia egiten ahalko dute.

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak salatu du Decathlon-ek EAEn dituen establezimenduetan kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak urratzen jarraitzen duela. Enpresak ez du bermatzen euskararen presentzia bere dendetako seinaleztapenean, informazio idatzietan zein bestelako zerbitzuetan.

Raimundo El Canastero taldearen aurkako epaiketa atzeratu dute, akusazio larriagoak egotzita. Lizarrako alkateak azken unean jarritako helegitearen ondorioz, orain taldeari "gorrotoa sustatzea" ere egozten zaio. Lau urteko kartzela-zigor arriskua dute kideek.

Su-etena hitzartu eta hilabetera, astekari hau ixteko unean (otsailaren 17) lehen faserako adostutako 33 bahituetatik 25 askatu ditu Hamasek. Israelek, berriz, 985 preso utzi ditu aske. Bigarren fasea martxoaren 2an da indarrean sartzekoa.

Emmanuel Macronek egindako deiarri erantzunez, NATOko eta Europako agintariak Parisen elkartu dira otsailaren 17an, AEBek eta Errusiak iragarri ostean Ukrainako gerra amaitzeko elkarriketei heltzekotan direla.

AHT Gelditu plataformak deituta, abiadura handiko trenaren aurkako manifestazioa egin dute Iruñean.

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Arkitekto aktorea



ULA IRURETAGOIENA

Madrilen arkitektoentzako kongresu bat burutu berri da, arkitekto profesioaren krisiaz eztabaidatzeko. Arkitekto izateko modu tradizionala eta gaur egungoa desberdindu dute. Zertan den tradiziozkoa? Oscar bidean den *The Brutalist* filmean ageri den arkitekto epikoarena. Nor bere baitan biltzen den gizonezkoa, lanera zinez dedikatzen dena, irmotasun handiaz ideiak defendatzen dituen eta handiuste eta historioniko izatera irits daitekeena. Profesioa, pertsonaia baten burutapen eta sormen pertsonalen lorpen-ibilbide baten gisara ulertua. Arkitekturak dituen balore etiko eta sozialak itsutu egiten dituenean pertsonaiaren edertasun eta kontzeptuen bilaketa-obsesibo nahiak. Eta horregatik gizarteko arazoetatik urruti sentitzen den profesio bat da arkitektoarena.

Zergatik ez den arkitektoaren zerbitzua gizareratzen egiteko baliotsu gisa, aspaldiko kezka da profesioakideen artean. Zergatik etxe batean iturginaren beharra ulerkorra den bitartean, arkitektoarena ez-nahitaezkozkat jotzen den. Zergatik ez dauden arkitektoak etxebizitza krisi garaikidearen gatazkaren zentroan, partaide diren heinean. Eta aldi berean zergatik lotzen den arkitektoa “etxeak egiten dituenarekin”, plazak, dendak, osasun-etxeak, arte erakusketak eta abar luzea ere eraikitzen dituen arren. Zergatik arkitektoaren etxeak, arrotzegi izan daitezkeelako, pareta okerrerekin irudikatzen diren. Aurreiritziak, zinemarako erabilgarriak.

Arkitekto garaikidearen erretrato filmiko bat egin beharko bagenu, lantaldean jarriko genuke lehenik, eta gainera, interes estetikoaren ondotik, materialen ekoizpenean energia gastuan eta birziklapen aukeretan pentsatuko du, hala nola zein bizilagun ehundurak sostengatuko duen diseinatzen den eraikuntza berria. Gaur egungo errealtateari erantzuteko hainbeste geruza hartu behar dira kontuan arkitekturatik ihes egiten dutenak baina erlazioan jarri behar direnak, ezen ez dago Adrien Brodyk antzetzuz zezakeen figurarako paperik. ●



Nostalgia 'sold out'

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Gauzak ez dira izatez errazak, eta, izango da batagatik edo besteagatik, baina, azken boladan, mingainari behar baino gehiagotan egin diot koski bi kontu hauengatik: *sold out*-aren kultura eta *FOMO*-a –azken hori agian azaldu behar da, ez baita hainbestetan esana: esperientzia jakin baten parte ez izatearen eta horregatik baztertuta sentitzearen beldurra da *FOMO*-a, ingelesez-. Bi fenomeno horiek elkartzen direnean dagoeneko gure esferatik iragan diren musika taldeen itzulerekin, are mingarriagoa zait hozkada.

Duela hilabete batzuk Ruper Ordorikari honela leitzen genion *Gakoak*-en. Errobi kontzertu batzuk ematera itzultzekoa zenaren ingurumarian, talde zaharren itzuleraz oro har berbetan, zera zioen: “Ez dakit zer gertatzen ari den. Zalantza dut ez ote duen gure ahulezia erakusten, ez ote ari garen ahulezia seinalatzen, gure kemena baino gehiago. Uste dut, dena dela, badela jende bat hori eskatzen ari dena, eta bistan da, sarrerak saltzen dituztelako”.

Memorian freskoago dugu beste hau. Miren Amuriza honela mintzo zen azken liburuaren kari Leire Vargasek egin zion elkarrizketa mamitsuan: “Uste dut iragana idealizatzea dela nostalgiaren arrisku handienetako bat. Azken urteotan eta pandemiaren geroztik bereziki, diskurtso apokaliptikoak nabarmendu diren honetan, ematen du mundua orain dagoen moduan edo okerrago egongo dela beti, eta, beraz, lehengo guztia hobea zela. Eta hori ez da horrela. Bai lehengoak eta bai oraingoak baditu bere argi-ilunak”.

Buitraker, Autobus Magikoa eta Never Surrender musika taldeak oholtzara itzuliko dira kontzertu bat ematera, uztailan egingo den azken Hatortxu Rockeen. Ez dut ezer talde horien kontra, ezta jaialdiaren aurka ere. Ez dakit, ezta ere, Amurizak eta Ordorikak zer pentsatzen duten gaiaz. Neuri deigarria zait, ordea, halako tamainako eta ibilbideko jaialdi batek talde zaharrak berreskuratzeke joera izatea, eta ekinbide horri horrelako boza eman nahi izatea. Baita komunikabideak joko horretan sartzea ere. Ez da lehen aldia. Halakoetan Ordorikaren hitzak datozkit gogora: ez ote duen horrek guztiak gure ahulgunea erakusten, kemena baino gehiago. Litekeena da liturgia horren guztiaren oinarrian etorkizunera begirako proiektio falta bat egotea, gure gabeziaren isla izatea. Baina egia zor, beti eutsi behar izaten zaio nonbait eta noizbait edukitakoari.

Predikurik ez. Eta bigarren hozkadaritza mingainari. Itoiz edo beste talderen bat itzuliko balitz, dudarik gabe, egon beharreko lekuan legoke artikulugile hau. Nostalgiaren pisua. Baita inoiz bizi izan ez duzunaren nostalgia ere. Horiek guztiak barnebiltzen ditu ditzosozko *FOMO*-ak. ●

NANO**120**

langile kaleratuko dituzte Tuterako Nano Automotive lantegian, enpresa itxi ondoren. Zuzendaritzak argudiatu du bezeroen eskaria "drastikoki" murriztu dela. Siemens-Gamesa, Sunsundegui, BSH, Tasubinsa... Nafarroako industria albiste txarren sinonimo bilakatu da azken asteetan.

4.000

migratzaile atxilotu dituzte sei hilabetetan Erresuma Batuan. Agintean dagoen Alderdi Laboristak atxiloketen eta deportazioen irudiak erakutsi ditu, eta urtarril honetan "errekorra" egin duela esan du, harro-harro.

200.000
milioi euro

Adimen Artifizialean inbertitzeko konpromisoa hartu du Europak. Otsailaren 10 eta 11n ehun bat estatuburu elkartu dira Parisen, Adimen Artifizialaren sektoreko ordezkariekin batera.

"Euskara hizkuntza gutxitua da; arlo publikoan ez dugu onartuko atzerapausorik"

IMANOL PRADALES

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

BERRIA (2025-02-15)

"NAFARROAKO INDUSTRIA SAREA BERPIZTU ETA INDARTUKO DUTEN POLITIKA PUBLIKOAK BEHAR DITUGU"

Milaka lagun mobilizatu dira Iruñean, "Hemen gaude, industriaren alde" lelopean.

2025-02-16

"Gizartean gertatzen ari den gorakada erreakzionario horretan, unibertsitatea ez da salbu gelditzen"

MAREN LAZPIUR,
IKASLE ABERTZALEAK

Irakasle bat salatu dute EHUko Farmazia Fakultatean, sare sozialetan mezu eta ideia erreakzionarioak zabaltzeagatik.

HALA BEDI (2025-02-11)

Hezkuntza sistemaren ahots bateratua



DIANA FRANCO EGUREN

Boterea eskuratzeko modu asko dago; denak ez dira politak. Bada boterea eta horrek berarekin darraren erantzukizuna banatu nahi duenik, agintea bilatzen duenik. Beste batzuek errespetu larri diote eta pauso bakoitza hainbeste neurtuta ez dira gai erabakirik hartzeko. Boterea zer den inoiz ezagutu ez duenik bada, eta ahots xumearekin zerbait ondo ez dagoela ulertzen duenean seinatzen duena, bizitza hobetzeko bidean. Batzuetan, ohartu garenako ahots xume hori ekintza antolatuta bilakatu da eta arazoaren aurrean boteretzen joan da.

Badira zenbait eremu non pertsona xumeok arreta handia jartzen dugun, gure bizitzetan eragina erraldoia baita: hezkuntza da horietako bat. Euskal Herrian dugun hezkuntza sistema oso anitza da, "mundu" ezberdinei arreta egiteko sortua. Gobernatzen gaituzten botereek guztiontzat on den ezer egiteko gai ez dira izan oraindik. Errealitate horretan, eredu guztiak "txarrak" suertatu dira eraldaketa digitalen aurrean; hezkuntza sistema arduratuta dago. Hezkuntza sistemako parte garen ikasle, familia, irakasle, ikertzaile, kudeatzaileak... pixkanaka-pixkanaka arazoa seinatzen hasi gara, eta gure artean partekatzen. Azken urteetan hainbat mugimendu sortu dira: hala nola hezkuntza.librezale.eus eta altxaburua.eus. Bietan, hezkuntza sistema osatzen duten eragile guztietako adierazleak aurkitzen dira, eredu publikotik zein hitzartutik. Guraso elkarten bileretan, mezularitza aplikazio ezberdinen kanaletan, medioetan... oihartzuna aurkitu du inoiz ez bezalako ahots bateratuak. Ikastetxeak, haurrak eta gazteak dituzten familia askoren bizitzan antolaketaren erdigune diren heinean, eskaeren jo-muga izan dira. Adibidez, ikastetxeetan mugikorrek debekatze-ko eskaera. Beste batzuk konplexuagoak dira: hezkuntzaren digitalizazio ereduaren inguruan hausnarketa sakona egitea, hezkuntza sistema osatzen dugunon datuak merkatugaitzat hartuko ez dituen eredu baten bidean. Denak dira garrantzitsuak. ●

Muga-zergak

MIKEL ARAMENDI

Air Force One hegazkinean Super Bowl-erako bidaia aprobeztatu zuen Donald Trumpek, ezartzeaz dituen muga-zergen berri emateko. Eszenografiaren aldetik, bikain. Etxerako mezua da "lasai baino lasaiago nago ni; begira nora goazen... Estatubatuarrak ere lasai egon daitezke gaur, eta bihurtu aurrera ere".

Ohartu da -edo esan diote- aurreko astean aditzera ematen zuten "oinaze pittin" horren mezua ez zela merkataritza-gerrari ekiteko komenigarriena, eta gutxi gorabehera, 2017ko hartara itzuli da: merkataritza-gerrak oso onak dira, eta aise irabazten dira. Baina halakorik esan gabe, badaezpada ere. Ez baitu hori adierazten historiak.

Berez, lasaitasuna antzezteko ahalgin horrek badu zerikusia, Trumpek berak ez bada, haren ingurukoak behintzat agintean daramatzaten aste hauetan muga-zergen egitasmoen inguruan sumatzen hasi diren oinazemalarekin. Izan ere, oinazea da merkataritza-gerrak bestelako edozein gerrarekin erkide duena; ez oinaze fisikoa, bai ekonomikoa... Hortik erator daitekeen guztiarekin. Zuzenean odollik ez isurtzeak ez du jolas bihurtzen merkataritza-gerra.

Kanada, Mexiko eta Txinaren aurka iragarritakoek aurkitu duten erantzunak zer pentsaturik eman behar lioke Trumpekin Etxe Zuriari. Errepresalien

ataka zabalik geratu da kasu guztietan; eta Txinaren kasuan, egikaritu egin dira, lehen unetik, errepresalia horiek.

Negozio-atal kaltetuak oinazearen beldur dira, jakina, baina gizarte-giroa ez da amore ematearen aldekoa inon. Trumpekin izaerak asko "laguntzen" du horretarako. Denbora igaro (eta oinazea nozitu) ahala, aldatzen joango da hori, ziur. Baina faktore estrategikoa da iritzi publikoa.

Gerra guztietan bezala, estrategia behar baita merkataritza-gerran ere, haren esanera jokatzeko. Oraingo lehen borrokatxoek erakusten dute, adibidez, Txinak behintzat doitu-ta daukala erantzunaren estrategia. Erabiliko dituen baliabideak, epeak, mailak eta intentsitateak luzaro hausnartu dituela. Eta herabetasunez mozorrotuta, min egitera doala lehen unetik, sektore edo ekoizpen zehatzak jipoituz. Europar Batasunari halakorik eskatzea ameskeria izango litzateke, noski.

Galdera potoloa da: ba ote du estrategia bat Trump administrazioak? Esate baterako, zein da sutu duen gerra honen helburu zehatza, Trumpek ohikoa duen kalamatrikaz harago? Merkataritza-balantza orekatzea? Estatubatuaren industria indarberritzea? Diru-kutxa publikoa hornitu eta defizitak gutxitzea? Txinari zangoak moztea? Europa izorratzea? ●



ROBERTO SCHMIDT / AFP

“”

Hezkuntza sailburuaren determinismo teknologikoak kezkatzen gaitu

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Teknologiaren erabilera eztabaidatzen ari dira Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean, eta horretarako hainbat aditu eta eragile ari dira batzordean beren ekarpena egiten. Ikastetxeetan mugikorra debekatzeko araudi orokorra eskatu duen Altxa Buruako arduradun taldearekin hitz egin dugu.

Zergatik behar da dekretu bat, ikastetxe guztietan mugikorra debekatuko duena?

Datuek erakusten dutelako mugikorrik gabeko eskolek ikasketa eremu hobekak ahalbidetzen dituztela, arretari, segurtasunari nahiz ziberjazarpenari begira, eta araudi orokorrik gabe, ikastetxe batzuek eta besteek araudi ezberdina izateak ekartzen duelako arreta gaitasuna mantentzeko edo ziberjazarpena pairatzeko aukera ezberdina dela ikastetxearen arabera, eta hori ez da bidezkoa. Gainera, zaugarrienak izan ohi dira kalteuenak, baliabide eta ezagutza gutxien dituzten familien testuinguruan egin ohi delako mugikorraren kontsumo altuena, eta beraz eurak dira gehien behar dutenak eskolak mugikorrik gabeko arnagune bihurtzea. Gaia ez da eskolara mugatzen, familiok ez diogu uko egiten gure erantzukizunari, baina nahi dugu hezkuntzak ez dezala arazo elikatu, baizik eta izan dadila konponbidea.

Aldiz, erabakia ikastetxe bakoitzaren bizkar utzi du Hezkuntza Sailak.

Eta nola eskolak erabaki duen, zerbait gaizki ateratzen bada eskolaren errua da. Jokaldia hori da. Beste inon ez da halakorik egin: Frantzia, Herbehereetan, Italian, Espainiako erkidego guztietan... eskatzen dugun dekretua atera dute. Izan ere, ebidentzia zientifikotan oinarritzen bagara, ez dago justifikatuta mugikorra ikastetxeetan baimentzea.

Zer argudiatzen du Hezkuntza Sailak dekretua ez ateratzeko?

Argudiatzen du goitik beherako neurri batek ez lukeela eraginik izango. Batetik, badirudi Hezkuntza Saila onartzen ari dela bere erabakiek ez dutela eraginik,



eta bestetik, nahiko argudio selektiboa da, goitik beherako beste neurri asko hartzen baititu.

Behetik gora egin behar dela, familiekin adostuta, oso argudio salgarria izan daiteke, baina hain justu testuinguru zaugarrienean eta sozioekonomikoki zailenean daudenak izan ohi dira instituzioen laguntza gehien behar dutenak, eta horiek dira, lehen aipatu dudan moduan, neurria gehien behar dutenak. Gainera, behetik gorako bide hori, eskolaz eskola profesional eta familiak kontzientziatzeko prozesu hori, teorian egin da jada, Hezkuntza Sailak aginduta. Hortaz, behin kontzientziazio prozesua egina omen dagoen honetan, zerk oztopatzen du dekretua ateratzea?

Teknologiaren erabilerarekiko ikuspegi kritikoa falta zaio Hezkuntza Sailari?

Bai. Alxa Buruan eskolen digitalizazioaren alde gaude, baina digitalizazio osasuntsua, librea (software libreduna) eta ebidentzietan oinarritua. Ez gaude teknologiaren kontra, garapen osasuntsu baten alde gaude, eta horretara egokitu behar da teknologiaren erabilera ere. Osasunaren ikuspegitik adibidez, bai Osakidetzak bai Espainiako Estatuko Pediatria Elkarteak egina dauka proposamena: 0-6 urteko haurrei pantailarik ez eskolan, Lehen Hezkuntzan gehienez ordubete egunean, eta DBHn gehienez bi ordu. Osasun irizpideak

dira, baina hezkuntzan are zorrotzago jarri beharko ginatke, mugikorrek kalterik egingo ez duela bermatzeaz gain, balio erantsi bat ekarri behar diolako ikas-prozesuari.

Jaurlaritzak asko inbertitu du eredu jakin bati erantzuten dion digitalizazioan. Kezka izan dezake, egiten ari diren digitalizazioaren kontrako korronteak indarra hartuko ote duen?

Agian. Gure kezka da Hezkuntza sailburuak askotan erakutsi duen determinismo teknologikoa: bai ala bai sartu behar da, eta modu akritikoan. Baina hain justu, teknologia erabili behar da modu oso kritikoa. Eskolan kompetentzia digitalak landu behar dira, bai, baina ezberdina da gainerako ikasgaiak digitaalari irakastea, zeren memoria, arreta, ulermena, pentsamendu abstraktua... hobe lantzen dira analogikoki.

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean gaia mahai gainean da berriz. Dekretua ateratzeko aukerarik ikusten duzue?

Tonu aldaketa nabaritu dugu, EAJko bozeramaileak onartu du gauzak ez direla ongi egin, eta nahiz eta itsututa ikusten ditugun dekretua ez onartzearekin, konturatzen ari dira azken hamarkadan hartu dituzten erabakiak ez direla egokienak izan, meloi handi bat dutela orain mugikorren gaiarekin. ●

MOZAMBIKEN KONTRATATU ZITUEN MILITARREN TORTURAK ISILPEAN GORDE DITU TOTAL MULTINAZIONALAK

Mozambiken gas eremu zabal batean erauzketa prozesu bat martxan ezartzeko prest zen 2020an TotalEnergies enpresa frantsesa, eta gunearen segurtasuna bermatzeko Mozambikeko unitate militar bat kontratatu zuen. Baina Afrikan egitekoa zuen "inoizko inbertsio pribaturik handiena" kolokan jarri zuen 2021ean Palma hirian islamistek piztutako gu-

duak. Jazarle islamistek ez zioten, halere, multinazionalaren azpiegiturari eraso egin, baina, *Le Monde*-n eta ikerketa kazetaritzan dabilen SourceMaterial-en ikerketak argira ekarri digu hainbat herritarren atxiloketa, bortxaketa eta erahilketaren errudun direla militarrek. Multinazionala jakinean zela azaleratu dute kazetariak. Ez ikusiarena egitea estrategia ote?

 NICOLAS GOÑI

TotalEnergies enpresa frantsesa –2021 urtea arte Total izenez ezaguna zena– petrolioaren sektoreko munduko bosgarren enpresa handiena da. 2024. urtean 18.300 milioi dolarreko etekina egin zuen. 2024. urtea inoiz neurtutako urterik beroena ere bazen, eta halako beroketa gertatuko zela aspaldidanik bazekiten Total enpresakoek, klimaren inguruko lehenengo COP goi-bilera baino askoz lehenago ere. Baina, ez ikusiarena egiteaz gain, ezagutza horren aurkako narratibak zabaltzen aritu ziren denbora luzaz, ARGIAren 2.792 zenbakiko *Klima larrialdiaren erdian, negozio ereduak aldatu baino Totalek nahiago izaten du zalantza hauspotu eta zabaldu* erreportajearen azaldu genuen bezala. Ez ikusiarena egitea Totalen estrategiaren parte dela dirudi, enpresak Mozambiken duen proiektu bati buruz *Le Monde* egunkariak eta SourceMaterial ikerketa kazetaritza kolektiboak bideraturiko ikerketak erakusten digun bezala.

Afrikan inoizko inbertsio pribatu handiena egitekotan omen zen Total 2020an, zehazkiago, Mozambike iparreko Cabo Delgado probintziako Palma hirian. Afungi izeneko gas eremu handiaren erauzketa eta gas natural likidotua (GNL) bertatik

esportatzea zuen asmoa, Mozambique LNG partzuergoaren bitartez.

Proiektu hori ez zen aurreikusi bezala joan, nagusiki 2021eko martxoaren 24tik apirilaren 5era jazarle islamistek bideratu "Palmako gudua" izeneko erasoengatik. Hiriak orduan 75.000 biztanle inguru zituen, horietarik asko errefuxiatuak. Martxoaren 24an, lanen berrabiatzea iragartzen zuen Totalek, baina Afrika Erdialdeko Estatu Islamiakoa taldekoek hiriari eraso egiten hasi zitzaizkion hiru frontetatik, bertan zeuden 1.000 militar eta polizien indarrak gainditurik. Ehunka herritar ihes egiten saiatu ziren, eta horietarik batzuk Afungi gas eremura joan ziren babes bila, jakinik bertan Mozambique LNG partzuergoak kontrataturiko militarrek bazeudela.

“TERRORISTAK ZARETE”

Urte bat lehenago, Totalek kudeatutako partzuergoak hitzarmen bat izenpetu zuen Mozambikeko gobernuarekin, armadak gas ustiatze eremuaren seguritatea bermatzeko. Soldaduentzako logistikaren ardura Totalek hartuko zuen, eta soldaduei pizgarri bat ordainduko zien, giza eskubideak errespetatzeko baldintzapean. Baina 2021eko ekainean, arma-

daren babes eskatzera etorri zirenek bortizkeria latza pairatu zuten.

Afungi eremuaren sarreran emakumeak eta gizonak banatu zituzten militarrek. Hamarnaka gizoni terrorista izatea egotzi zieten, eta jipoitzen hasi ziren, bertzerik jakiten saiatu gabe. Susmo huts –eta oker– horretan bakarrik oinarriturik, kontainerretan atxilo gorde zituzten hainbat astez. *Le Monde* eta SourceMaterialek jakinarazi dutenez, lehen bi egunak jan gabe utzi zituzten, elkarren gainean pilatuta, ezin zutela etzan ezta eseri ere. Kazetariak kalkulatu dutenez, kontainerretan 56 m²ko azalera 220 gizon sartu zituzten. Atxilotuetarik bat egarri egonez gero, ingurukoek altxatzen zuten, kontainerreko sabaian kondentsatutako ura miazkatu zezan. Hala adierazi zien kazetariei 28 urteko arrantzale batek, orduz geroztik ibiltzeko ahalmen mugatua duenak eta gaur egun oraindik arrantzan aritu ezinean dagoena.

Ondoko egunetan Afungi inguruko biztanleek salatu zituzten bertako militarren gehiegikeriak: mugimendu askatasunaren oztopatzeak, diru estortsioak, emakumeen bortxaketak, gizonen jipoitzeak –batzuk hil arte–, atxiloketa bidegabeak zein bahiketak. Totalek kazeta-



MILITARREN GEHIEGIKERIAK

Mozambikeko Cabo Delgado probintziako portu industrial bat. Halako kontainerretan hainbat zibil presorik gorde zituzten Total enpresak kontratatutako militarrek.

riei erantzun zien ez zela bortxakeria eta eskubide urraketa horiez jakinean, eta inkesta judizial bat martxan zegoela.

Baina, hainbat lekuko elkarrizketatu, Mozambikeko telebistako bideoak satellite irudiekin konparatu, eta enpresaren barne dokumentuak aztertu ondoren, Totalen ardura agerikoa dela diote *Le Monde* eta SourceMaterialek. Bereziki, Totalen barne txosten batean esplizituak dira militar horien kontratazioaren baldintzak eta ondorioak: "Giza eskubide urraketa bat egonez gero, [kontratutako militarrekiko] lotura honek partzuergoaren erantzukizun legala zuzenean konprometitzen du". *Le Monde* eta SourceMaterialeko kazetariak bertze hainbat barne txosten aztertutik, argi utzi zuten Total bere eremuan gertaturiko bortxakerien salaketan jakinean zela. Totalek salatutako militar batzuei pizgarria ordaintzeari utzi zion, baina

Afugiko militar unitatea bermatzen jarraitu zuen. Totaleko langileak bertara itzuli zirenean 2021eko azaroan, bortxakeriek oraindik jarraitzen zuten, eta militar unitateari emandako bermeak 2023ko urria arte iraun zuen. Hau da, lehen salaketak baino bi urte eta erdi geroago. Ez ikusiarena egitea zer den.

PROIEKTUAREN DIRUZTATZEA KOLOKAN

Kazetaritza ikerketak bere lehen ondorioak ekarri ditu: Mozambikeko soldaduek Afungin egindako bidegabekeria eta giza eskubideen urraketen inguruan bildutako frogak seriooki aztertzen hasi dira proiektuan inbertitzeko prest ziren Erresuma Batuko UK Export Finance eta Herbehereetako Atradius gobernuo kreditu agentziak. UK Export Finance agentzia 1.150 milioi dolar inbertitzekotan zegoen, baina prozesua oraingoz

eten du. Herbehereetako finantza Ministeritza ere ari da bere parte-hartzea berraztertzen. Egoera horrek bertze hainbat gobernuen sostengua kolokan ezarri lezake, bereziki "esportaziorako garantiak" emateari dagokionez. Garantia horiek izan ezean, proiektua finantzatuko luketen hainbat bankuk ez lukete aurrera jarraituko, Friends of the Earth GKEko Anna-Léna Rebaud kanpaina-arduradunak azaldu duen bezala. Bidean administrazioko azken asteetan, Total enpresako zuzendari nagusi Patrick Pouyannék AEBetako Gina Raimondo merkataritza idazkariari laguntza eskatu zion. Urtarrilaren 20an ez zuen oraindik horrelakorik lortu.

Poztu nahi genuke klimarentzat berri ona delako. Baina osokiago poztuko ginateke ez balego gezurretan dabilen eta Afrikako txiroen torturak estalpean gordezten dituen petrolio multinazionalik. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com

f i

La Furia

MIMOA ETA INDARRA



CASCANTE EUSKAL HERRIA BADA, ZERGATIK EZ DIRA JOTAK EUSKAL KULTURA?



Ilezko prakak, gerritik oinetaraino, latexa besoetan eta soinean, eta adatsa laranja gori. Horrela aurkeztu du La Furiak bere hirugarren lan luzea: *Ultra*. Horrek guztiak ederki islatzen du rap abeslariaren apustua: dena eman, bere irizpideen arabera.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Ultra kaleratu berri duzu. Zer da disko hau zuretzat?

Badaezpada, gehiago ez balego ere, neure buruari eman nahi izan diodana da. Oro har, bizitza bihar bukatuko balitz bezala jokatzeko ari naiz; maiz adinak ekartzen du jarrera hori, edo gauza potenteen bat gertatu ostean halako txinparta bat sentitzen duzu. Erabaki dut horrela jardun nahi dudala: batzuetan, badirudi bizitza azkengabea balitz bezala bizi garelako, maila globalean halako garrantzirik ez duten gauzekin kezkatuta. Kontua da gozatu nahi dudala, eta neure buruari aukera eman gauzak ondo egiteko. Batzuetan ondoko dakigu zer den kaka lepoino dugula egotea, baina ba al dakigu ongizatean moldatzen? Nik erabaki dut baietz, eta, bestela, ikasi egingo dudala. Niretzat, disko hau izan da nire esku

dagoen guztia egitea, onenak ematea, gogor lan egitea eta gozatzea, bai prozesuaz bai diskoak dakarrenaz, nire parametroen arabera betiere, zeren musikan batzuetan arrakastaren kontzeptuak ez dauka zerikusirik zurekin edo zuri on egiten dizunarekin.

Zure taldea, esaterako, oso garrantzitsua da zuretzat.

Nire taldekoek urteak daramatzate nirekin. Talde handia gara; zuzenekoetan ez dirudi, baina hor gaudenak baino gehiago gara. Orokorrean, nik bilatu dut jendea, eta ondo aterata da ia beti. Zergatik? Adibidez, DJak, Valentina, nire etxe azpiko gimnasioan lan egiten zuen, zumbako eskolak ematen zizkidan, eta egun batean esan nuen: "Pertsona hau, energia honekin, bera den guztiarekin,

taldean nahi dut". Egiaz bera ez da horretan aritzen, beti esaten du ez dela DJa baizik eta La Furiaren DJa, baina nik hori aukeratzen dut. Irudiaren edo modan dagoenaren ke-bonbei kasu egiten badiegu, gurekin zerikusi handiagoa izan dezakeen jende mordoak galtzen dugu bidetik.

Diskoan koska bat estutu duzu musikari dagokionez ere.

Berriro ere jarrera-aldaketa horretatik, gogoko dudana egin dut denbora guztian, funtzionatuko zuen edo ez aintzat hartu gabe. Bost axola. Iruditzen zait amore emateak, kanporantz amore emateak behintzat, baduela halako xarma bat. Bulegoen jokoan sartzen zarenean, beti esaten dizute: "Saia gaitezen ekoizle honekin lan egiten, ondo baitabil", eta



a ella le gusta
la gasolina

La Furia

CASCANTE, 1983



Rap abeslaria da Nerea Lorón Díaz. Bere hirugarren diskoa kaleratu berri du: *Ultra*. Aipagarriak dira disko hiru kolaborazioak —Aiert, Odei eta Rebeca Lane—. Musika-riaren arabera, hiru pertsona horietan biltzen dira “interseksionalitate horiek guztiak, baita neure azalean bizi ez arren babesten ditudanak, eta neure bide errealekin lotuta daudenak”. Datozen asteetan Portugaleten (hilak 28), Bergaran (martxoak 1), Lizarran (apirilak 5) eta Tolosan (apirilak 6) joko du.

azkenean hor, nahiz eta nik izaera sendoa izan dudan beti, badago zirrikitu bat eta hortik gal zaitezke. Bestalde, sekulako ikuslegoa edo kanpoan oihartzun ikaragarria ez izatea har daiteke porrot gisa edo aukera gisa. Eta niretzat askatasuna da. Ez dakit zer egingo nukeen bi BEC beteko bannitu, baina nola ez den hala, goza dezagun askatasun horretaz. Oihartzun masiborik ez izateak baditu hamaika abantaila, baina arrakastak hainbeste itsutzen gaituenez, ez gara ohartzen.

Jarrera-aldaketa hori zerekin lotuta dago?

Prozesu pertsonal luze batekin zerikusia du: urte asko terapian eta ondo egoteko borrokan. Zeren nire abiapuntua oso gaizki egotea zen. Baina, ez dakit naturalki ala ez, bizitzara naraman bulkada bat dut, oso indartsua. Ez dut zorigaiztokoa izan nahi, eta lan honek hondamendi-une asko dakartza. Uste dut kontu ohikoa dela musikan gabiltzanon artean, eta kanpo-logika guztiz zitalei dagokie; logika horiek heriotzara doaz, ez bizitzara. Eta nola kokatzen naiz ni horren aurrean? Ingurura begiratuta, nire bizitza ederra da: maite dudan jendea ondo dago, urteak daramatzat kantuan, modu batera edo bestera. Zenbat talde daude, apartak, kontzerturik gabe; inork mikrorik aurrean jartzen ez diela? Kontua da, kanpotik, denbora guztian konparatzen gaituztela...

Rosaliarekin.

Ez bazara Rosalia, galtzailea zara. Ez, ba. Eta gero justiziagatik ere bai, egotik ateratzeko, neurri batean egoa ere bada-eta. Beraz, jarrera-aldaketa, lehenik ondo egoteko eta gozatzeko, bizitza hau amaitu egiten baita, eta, bigarrenik, bozgorailu hau baliatu eta uste dudana esateko. Bidezkoa da, bozgorailurik baduzu, ondo erabiltzea.

Hain justu kanta bat eskaini diozu musika-industriaren gaiari: *Han matado al arte* [Artea hil dute].

Buruan bueltaka dabilkit. Beste garai batzuetan beste diskurtso batzuei buruz kantatu dut, eta iruditzen zait gaur egun oso ondo ordezkatura dardela beste leku batzuetan. Orainxe bertan feminismoek beste aho batzuetan egon behar dute, ez pertsona zuri eta itxura normatiboko baten ahoan.

Nik neureaz hitz egiten dut, eta orainxe bertan nire bizitzan zer ari da gertatzen gogotik izorratzen nauena eta gainera beste batzuei ere eragiten diena? Bada ikusten ari naizela astazakil dirudunak musika goitik behera gobernatzen arimarik gabe, gusturik gabe eta justizia-izpirik gabe. Eta ez da gauza berria, baina ari naiz ikusten nola ari diren apurtzen gauza mordo bat, aurretik sortutakoak eta sortzeko bidean zirenak, eta Euskal Herriaz ari naiz zehazki. Bat-batean ikusten ditut Petronorrek antolatutako kontzertuak; zer arraio? Urte luzetako lanaren izerdiarekin sortutako ehundura bat kaltetzen ari da.


Diskoak dakarren beste aldaketa bat: euskarazko kantuak.

Euskaraz idatzi nuen lehendabiziko gauza aurreko diskoko [*Post Mortem*, 2022] *Ama* kantuaen zati batzuk izan ziren. Amatasunak eman zidan zilegitasun hori, orduan hasi bainintzen euskaraz gehiago bizitzen eta nire bizitza euskaraz planteatzen beste modu batean. Txikitatik dut harremana euskararekin, eta harreman malkartsua da, ze ni Cascantekoa naiz eta badakigu egoera soziopolitikoa zein den. Neure familian inork ez zuen euskaraz egiten; amonak ez zekien neure izena esaten 1980ko hamarkadan. Baina gurasoek esan zidaten: “Zu euskal herritarra zara”, eta orduz geroztik hementxe nabil, baieztape horri edukia emateko ahaleginetan [barreak].

Nola bizi izan duzu harreman hori?

Batetik, euskara nire bizitzan egon da nire musikan baino askoz lehenago. Niri beldurra ematen dit nola erabiltzen diren borrokak norbere lekua lortzeko, feminismoarekin ikusi baitut nire inguruan. Ez dut epaitzen, baina ihes egiten diot. Ingurukoek esaten zidatenean euskarazko kantak egiteko, beti erantzuten nien: “Ni neu kantak euskaraz idazteko gai ez naizen arte, ez dut halakorik egingo”. Euskara beti egon da nire bizitzan, eta hain modu konplexuan, ezen altxor bat bezala ikusten bainuen, eta ez nekien nola egin.

Ama abestiaren kasuan, Jare jaio zenean –nire umea– kantaren errepika inprobisatzen nuen eta fardelak aldatzean abesten nion. Halako batean pentsatu nuen ederra litzate-



keela abestia grabatzea, berak betirako gorde zezan, eta hor sentitu nuen baietz. Tira, ezer baino lehen pentsatu nuen: ufa, euskaraz egiten dudan lehendabiziko kanta gauza moñoño hau izatea ere. Baina aldi berean nioen: eta zer, egia da barren.

Eta horren ostean, *Ziertzoa*, *Ultra* diskoko lehenengo abestia. Euskaraz izateaz aparte, Erriberako euskal identitateaz dihardu.

Azkenaldian bai aritu naiz gogoeta egiten ea zer esan nahi duen Cascanteko euskal herritar izateak, zeren ohartu naiz Erriberan –neuk bizi izan dudan moduan behintzat– euskal herritar sentitzen ginenok egin duguna izan dela Erriberara ekartzea Euskal Herriaren zentroko kultur kontuak, zeren hori baita euskal herritarra izatea, ezta? Eta

zergatik ez dira euskal kultura jotak edo Virgencita del Romero, Cascante Euskal Herria bada, azken batean?

Gero, egunerokoan, Arrasaten bizita, batzuetan sentitu dut ez nintzela parte. Eta, parkean, emakume saharar batekin egoten naiz –bion haurrak ikaskideak dira–, eta ikusten dut nola hurbiltzen den jendea eta nola aldatzen duen hizkuntza haur arrazializatuarekin. Parkeko haur guztiek euskaraz ikasten dute, zergatik egiten diozu gaztelaniaz arrazializatuari? Sutan jartzen nau horrek, baina, beste behin ere, gorpuzten ez ditudan borrokak edo diskriminazioak ezin ditut bizi, eta, hausnartuz, ohartu nintzen nondik zetorkidan amorru hori:

neure mugatik. Cascanten idatzi nuen *Ziertzoa*. Badirudi literatura eransten diodala, baina erabat erreala da. Tulebraserantz oinez nindoala idatzi nuen, ziertzoak astintzen ninduen bitartean, eta euskaraz idatzi nuen. Amaieran, honela dio abestiak: “Zuek ala gu herriaren alde”. Eta “gu” horretan sartzen dira beste horiek guztiak ere: aurrera goaz. Horixe gara. Kanta bilaketa bat izan da, eta berrespen bat: hona hemen bazter berri bat, eta hau ere biziko dut.

ekoizpenean eta manager-lanetan ere bazabiltza. Mimosaren Bulegoko kidea zara.

Kata Garciak eta biok osatzen dugu Mimosaren aurretik, bada kontu garrantzitsu bat: 2016an bira bat antolatu nion Rebeca Laneri [rap abeslari guatemaldarra] Euskal Herrian. Donostia 2016ren barruan kultura urbanoko proiektu batean lanean aritu nintzen Euskal Herriko kultura urbanoko beste eragile batzuekin. Urtebetez aritu ginen horretan, aurrekontu bat eman ziguten eta jaialdi bat antolatu genuen. Rebeca Lane gonbidatu nuen, itzulera-datarik gabeko bidaia-txartela hartu genion, eta Rebecak hilabete eta erdi pasa zuen nire etxean bizitzen. Berari zegokion guztiaz arduratzen nintzen: kontzertuak antolatu, *mertxana* saldu, bazkaria prestatu. Horren ostean, kontzertuak antolatu dizkiet lagunei: Elvirus, Eddi Circa...; miragarriak iruditzen zaizkidan horiek guztiei. Saiatzen naiz kontzertuen edo lantegien bidez lortu ditudan espazioak haiei ere zabaltzen. Barrutik sortzen zait.



Esaten zidatenean euskarazko kantuak egiteko beti erantzuten nien: ‘Ni neu kantuak euskaraz idazteko gai ez naizen arte, ez dut egingo’

Eta nolatan elkartu zinen Katarekin?

Unibertsitatean ezagutu genuen elkar, gizarte-hezkuntza ikasi genuen biok, eta behin batean BIMEn topo egin genuen hitzaldi batean. Testuinguru horretan, biok argi ikusi genuen zerbait egin beharra zegoela. Mimosaren proiektu gisa, mugagabeki zaila da eusten, bere burua berrasmatzen du behin eta berriz. Kata eta biok oso sutsuak gara, eta zailtasunak izan ditugu harremanean ere; horri buruz ere hitz egin beharra dago: prekaritatean dena da zailagoa, eta biok gara amak, eta bisexual eroak, eta prekarioak, baina beste alde batetik ederki konpontzen gara. Bestalde, zailtasunak izaten dira

gurekin lan egiten duten pertsonekin, hori barra-barra gertatzen da bulegoen eta artisten artean, eta horri buruz ere gutxi hitz egiten da. Harreman konplexuak dira oso: maitemintze erromantiko erabatekoak hasieran eta dibortzio erdiragarriak amaieran.

Amodio erromantikoa bezalaxe.

Erabat. Orduan, Katak eta biok esaten genuen: “Nola egingo dugu beste modu batera? Nola egiten dira harreman hauek?”. Bulego askotan, dirua dakartelako sostengatzen dira proiektuak, artista horiengan benetan sinetsi ala ez. Guk, berriz, barrenak astintzen dizkiguten proiektuekin soilik lan egiten dugu, nahiz eta beharbada ez dakarten diru asko, edo momentuz behintzat ez, edo auskalo, baina marjinari buruz ere hitz egiten dugu, eta horrek desadostasunak sortzen ditu. Beti sortuko dira desadostasunak, baina gure apustua da gauzei buruz hitz egitea, mahai gainean jartzea, berresanahitzea, berrantolatzea. Ikasi dugunaren arabera, manager izateak berekin dakar gauzak kentzea, gauzak jartzea, ikastea; eta ez gara harroputz jartzen, esanez “guk beste modu batean egingo dugu”. Batzuetan ezin da.

Nire kasuan, oso Furia eta oso Mimosa sentitzen naiz, neure ezaugarri funtsezkoenak dira. Mimo gorena eta erabatekoa naiz, neure bizitzan behar dut, bestela hil egiten bainaiz, eta gero banaiz, orobat, jenio txar utsiezina. Furia kanporantz, eta Mimosa barrurantz, gutarrentzat. Eta horretan gabilta.

Etorkizunera begira, zein dira zure asmoak?

Hasieran esaten nizun moduan, gauzak noiznahi amaitu daitezkeelako jarrera horri utsiko diot, daukadan horretan egoteko, ez daukadanari errepara-



tu beharrean: uste dut zintzoa dela ikus-entzuleekiko ere bai. Jen-

dearekin topo egin nahi dut, eman eta hartu nahi dut. La Furiari dagokionez, datorrenaz gozatu nahi dut, lanean segi, eta musikaren enplegu-ikuspegitik alden-du, ahal den neurrian. Hau da, Santanderreko kolektibo kuir batek deitzen baldin badit —duela gutxi gertatu zait— beren urteurrenean kantatu dezadan taberna batean, baina ez badaukate baliabiderik ni talde osoarekin joan nadin, formula bat bilatu dut dena egin ahal izateko. Zentzua ematen didan guztia egin ahal izateko. Ez dut hegorik moztuko inon, horixe bainaiz; ahal bezain aske izan nahi dut.

Ez da erronka makala.

Ez, oso zaila da, baina badakizu zerk

ematen didan hauspoa? Neure baitan egoteak; zeure baitatik kanpoan zaudenean, horrek sortzen du larridura. Adibidez, ez dakit zer jaialditan jo nahi baldin badut, horretarako haiek ohartu behar dute neure proiektuak merezi duela. Eta hori ez dago nire esku, beraz askatu egiten dut. Etortzen bada, bikain, baina neure esku dagoena da ezetz esan nahi ez didan gauzei uko egin behar ez izatea, soilik ez dagoelako dirurik, eta neure patrikatik ordaindu behar izatea. Nahi dut La Furia jasangarria izatea, eta denbora-tarte laburrean lortu dut, birkokatzea baita gakoa. Eta, Mimosarekin, ba gauza bera: mugitzeko beldurrik gabe. Desazkundera behar dugula, ba goazen; buelta bat eman behar diogula, ba eman diezaiogun. Azken batean, lokatzetik gatoz. ●

“Bat-batean ikusten ditut Petronorrek antolatutako kontzertuak; zer arraio?”

bertako
igogailuak | ascensores

-rekin BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus



Nazioartekotzearen iruzurra

Badira kontzeptuak bolada batzuetan edonon agertzen direnak, mantra ere bilakatzen direnak. Berez positibo eta beharrezko moduan agertzen zaizkigu, eztabaida gehiegirik gabe eta haiei buruz ia pentsatu gabe. Iruditzen zait mantra horietako bat nazioartekotzea dela, jatorria –nola ez– eremu ekonomikoan duena eta gizartearen alor ugartan indarrez agertzen zaiguna, hezkuntzan bereziki. Hain da eremu horretan arrakastatsua, ezen ikastetxeen matrikulazio kanpainetan geroz eta gehiago agertzen den. Unibertsitateen kasuan, are handiagoa da ustezko nazioartekotzearen garrantzia. Antzekoa esan dezakegu *digitalizazioa* edo *berrikuntza* bezalako kontzeptuez.

Zergatik agertzen zaigu nazioartekotzea hain garrantzitsu, ekidin ezin, eztabaida ezin gisa? Eta, batez ere, zer ezkututzen da kontzeptu horren atzean? Lehenik, kontuan izan behar dugu, nire ustez, eufemismo baten aurrean gaude. Nazioartekotzea aipatzen denean, ez da nazioarteari irekita egoteaz eta mundu mailako joera, hizkuntza, kultura, politika eta abarretara gerturatzeaz aritzeko. Balio positiboak horiek guztiak, nola ez. Aitzitik, nazioartekotzea, errealitatean, ingelesez aritzearen sinonimo da, ia inork ez baitu buruan nazioartekotzea arabierarekin edo txinerarekin lotzea, hizkuntza gutxituak ez aipatzearen. Baina *ingelestartze* (edo *estatubatuar-tze*) prozesuak aipatu ordez, nazioartekotzea da saltzen dena.

Nazioartekotzea, errealitatean, ingelesez aritzearen sinonimo da, ia inork ez baitu buruan nazioartekotzea arabierarekin edo txinerarekin lotzea, hizkuntza gutxituak ez aipatzearen

Beraz, nire ustez berezi beharrekoa dira ingelesaren afera, batetik, eta nazioartekotzea, bestetik. Izan ere, adibidez, gaur egun *Batxilergo Internazionalaz* hitz egiten da, *ingelesez egindako Batxilergoaz* hitz egin beharrean, zuzenago litzatekeenean. Ingelesaren afera horrek sakontzeko asko emango luke, baina bi ñabardura egitera mugatuko gara. Batetik, ezin da ukatu gaur egun ingelesa *lingua franca* nagusia dela, esparru gehienetan eta Mendebaldean behintzat. Hizkuntza garrantzitsua da, argi dago, eta hizkuntza gutxituon hiztunontzat ere aukera ugari ere badakartza, gure kasuan gaztelaniaren eta frantsesaren morrontzatik irteteko bidea ere izan daitekeelako.



IKER IRAOLA ARRETXE
SOZIOLOGOA ETA EHU-KO
IRAKASLEA

Baina, beste alde batetik, ingelesari loturik azpimarratu behar dugu, gehienetan, norberarena ez den hizkuntza batean aritzeari buruz ari garela, horrek askotan kalitatean eta sakontasunean dakarren mugatzearekin. Azken kontu hori bereziki garrantzitsua da hezkuntza eremuan. Nolabait, problematizatu beharreko gaia iruditzen zait, eskoletan bereziki: zein irakasgai eskaintzen dira ingelesez, zergatik, zertarako? Egokia eta desiragarria al da derrigorrezko hezkuntzan Historia, adibidez, ingelesez ikastea? Zentzuzkoa da irakasle euskaldun batek ikasle euskaldunei Euskal Herriko historia ingelesez irakastea?

Nazioartekotzea, beraz, ez genuke besterik gabe ingelesarekin berdindu behar. Nazioartekotzeaz aritu nahi badugu, beste hizkuntza batzuk ere aipatu eta kontuan hartu beharko liratekeela uste dut, eufemismorik erabili gabe. Nazio ikuspegitik, Hego Euskal Herrian frantsesa lantzea ziur aski garrantzitsua izan beharko litzateke (eta gaztelania, mugaren beste aldean). Era berean, mundu mailan oso garrantzitsuak diren beste hizkuntza batzuk ere ez lirateke ahaztu behar, kontuan hartuta, gainera, hizkuntza horietako batzuk euskal herritar batzuen jatorrizko edo etxeko hizkuntzak ere badirela.

Nazioartekotzea, finean, ez dadila ingelesaren sinonimo izan; eta, hizkuntzaz harago, *per se* zerbait ona ere ez dela kontuan hartu dadila. ●

'Shop like a billionaire'




SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

ragarki batek mugikorrean salto egiten dit aspaldion. Nire mundua koloreztatuko duela egiten dit promes. Aplikazio horrekin milioidunek bezala erosi ahal izango omen dut. Produktu merkeak, oso merkeak, baita doakoak ere. Momentu historiko soziologikoak eskatzen duen marketinaren dianoan jo dute. Aplikazio ezagun hau ez da bakarra, jakina, baina honek, gainera, pandemiak ekarri zuen inflazioa aprobetxatzen jakin zuen mundutik zehar zabaltzeko. Dena garestitu al da? Guk aukera emango dizuegu ilusio berean jarraitzeko.

Milioidunek bezala erosi. Kantitatean, behintzat, kalitaterik eskaintzen eta eskatzen ez denez gero. Baina, bueno, azken batez, kontsumismoak horixe bultzatzen du, ezta? Eta hala amaitzen dugu, behar ez ditugun gauzak desiratzten eta batere baliorik ez daukaten objektuak pilatzen, harik eta zakarrontzian amaitu arte. Ez, ez dute truke baliorik, baina ezta erabilera baliorik ere. Zein da euren balioa, orduan? Erostea, gastatzea, edukitzea. Eta, sakonean, animoak lasaitzea eta kontsumismo horrek sorrarazi digun *monoa* apaltzea.

Leloarekin asmatu zuten. Historikoki beste estatus bat betetzea desiratu izan dugu, gure barrenetan pil-pilean omen dagoen grina aitorrezina da. Baina gauzak erosi ahal izatea nahikoa al da beste estatus bat betetzen dugula sinestazteko? Argi eta garbi, ez. Seguru beste zeozer ere badagoela...

Estatusa hierarkikoa da definizioz. Ez da horizontala, bertikala baizik. Bes-



DOM CAMPISTRON

te estatus bat betetzeko (edo betetzen dugula sentitzeko) beti izan beharko dugu beste inor azpitik, gure menean. Eta menean izateak agindupean baino ez du esan nahi. Hitz batean: morroiak.

Nork betetzen ditu funtzio horiek, orduan?

Zaintza krisiaren aurrean gobernuek hautu kontzientea egin zuten aspaldi: familien bizkar utzi eta, irtenbide errazik ez daukan ataka larri horri aurre egiteko, kanpotik etorritako hainbat lagun, gehien-gehienbat emakumeak, horretara bideratu. Eta hautu kontzientea dela diot, horretara datozelako atzean dauden politika guztiak, atzerritar legetik hasita, langile horien gutzien ikasketak eta prestakuntza administratiboki ez onartzeraino.

Antzina, herrietatik hirietara joandako gazteak sartzen ziren neskame, dirudunen etxeetan. Kolore eta jatorri berekoak ziren; ezberdintasun bakarra, klasea. Horrek, argiki, klase gatazka azalarazten zuen. Baina, ikusi dugunez, fenomeno aldatu eta zabaldu da. Orain, ugazaba ez da zertan diruduna izan eta "neskameak", euren herrialdeetan ez ziren bezala, hemen ere ez dira beste klase batekoak, beste jatorri batekoak baizik.

Baina etxeko langileena ez da adibide bakarra. Hortxe dira, besteak beste, *delivery* plataformak. Zer nahi, horixe agindu eta norbaitek egingo du gugatik atoa. Ezin dut burutik kendu harako abeslari ospetsua, desordutan titiburuak ezkutatzeko txopera batzuk behar zituela otu zitzaiena. Edo bere patata tortillagatik arrantzaka zebilen modelo. "Non dago nire tortilla?! Non dago nire tortilla?!". Potrohandi hori! Hartu patatak eta arrautzak eta izan pertsona funtzionala!

Horra hor garena baino gehiago garena apurka-apurka sinestazteko mekanismoaren hanka bi: gauzak eta gauzak pilatu ahal izateko aukerak, eta ugazaba sentitu ahal izateko erraztasunak.

Bide batez, jatorriak eta arrazak zeharkatzen dituzten adibideak dira denak, baita lehenengo ere, jakin badakigulako Txinatik datozen huskeriak zelan ekoiztu diren. Eta berdin digu.

Milioidunen antzera erosten jarraituko dugu eta gure mundua koloreztatuko da. ●



**KARMELE GISASOLA
ZENIKAZELAIA**
HERRI KIROLARIA

Zer erosi?

Azken boladan gero eta gehiago entzuten dugu gazte askok etxebizitza erosteko ahalmenik ez dugula. Batzuetan, badirudi ez dagoela beste gairik; egia da gai serioa dela. Niri neuri ere, 31 gertu izan arren, oraindik pixka bat falta zait neurea izango den etxebizitza lortzeko. Baina egia da beste gazte batzuek baino zorte handiagoa izan dudala, familiako baserrian geratzeko aukera izan dudalako (horrek dakarren guztiarekin).

Bart, lokartu baino lehen, sare sozialetan gai honi buruzko bideo bat azaldu zitzaidan. Alde batetik, 55 urteko emakumezko abokatua azaltzen zen, zeinak zazpi etxebizitza dituen: ohiko etxebizitza; gaztea zela erositako lehenengo etxe txiki bat; mendiko etxea; hondartzako etxea; gurasoengandik jasotako etxea; eta beste bi alokairuan. Azpimarratu zuen bere semea ere abokatu ikasketak bukatzen dabilela eta, bitartean, lanean ere badabilela eta etxebizitza bat erosi berri duela. Gurasoek diruz lagundu diote.

Beste alde batetik, unibertsitatean ikasten ari den mutil gazte bat azaltzen zen. Berak zioen pozten zela andere horregatik eta bere semearengatik, horrelako zortea izateaz, baina bera familiako kide bakarra dela unibertsitaterra

heldu dena. Goizetan ikasi eta arratsaldetan lana egiten du, eta soldata zati bat familiari eman behar dio, hileko gastu guztiak ordaindu ahal izateko. Beraz, ezinezkoa zaio etxebizitza bat erostea.

Bi parteak gustura entzun nituen, denok ez baikara egoera berean bizi eta iritzi ezberdinak partekatzea ondo baitator. Bi ertzak entzuteak eman zidan zer pentsatua. Baina bizitza ez da zuria edo beltza. Badaude tarteko milaka egoera eta denona ez da bera.

Gazteak etxebizitza erosteko ahalmenik ez izatea gai potoloa da, baina gizarte honek daraman erritmoa jarraitzea ez dakit ez den kezkarriagoa gazte batentzat. Askotan badirudi sare sozialentzat bizi garela. Bertan erakutsi beharra dago nolako bidaiak egiten ditugun; zer nolako arropa jantzen dugun; puri-purian dauden jatetxeetako menuen argazki collagea (badaezpada ordainagiriaren argazkirik ez erakutsi); eta hori guztia erakutsi ahal izateko, punta-puntako mugikorra. Gai gara goizean Durangon esnatu, Bilbon bazkaldu, trena hartu eta arratsalde iluntzerako Madrilén egoteko, afari batean edo kontzertu bat ikusten.

Hara eta hona ibiliko gara, gauza askotan gastatzen, baina oraindik ez etxebizitza batean. ●



**CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA**

Porcelana Irabia

Baneukan lagun bat Porcelana Irabian lan egin zuena itxi zuten arte, eta jatetxe edo taberna batera joaten ginen aldiro kikara eta plateraren ipurdia begiratzen zituena pieza non egina zegoen jakiteko. Gauza bera egiten dut nik gauza zaharren azoketara joaten naizenetan: begiratzeko dut non egina den, eta horren arabera erosten dut ala ez. Jabetzen naiz kafetegi txiki bat jar nezakeela dauzkadan kikara, pitxar eta azukreontziekin. Batzuk oparitu egiten ditut tokirik ez dudalako, baina denek ez dituzte nahi noizbait beste norbaitek erabilitakoak. Izan ere, batzuk zartatuta daude, edo jokoak ez daude oso-

rik, edo besterik gabe ez dute nahi beste norbaitek erabilitako zerbait. Nik askotan irudikatzen ditut beste bizitzak, zenbat gauza esan ote ziren, zenbat aitortza kafe bat hartzerakoan. Irudikatzen dut noiz eta nola hautsi ziren piezak, haserrealdi batean edo harrikoa egiterakoan. Armairuan kokatzen ditut eta pitzatuak atzean jartzen ditut. Izan ere, bizitzan askotan egiten dugun gauza bat da hori: zartatutako aldea ez dugu bistan jartzen eta alde ederragotik erabiltzen dugu, noizbait erabat hautsiko dela badakigun arren. Zartatua da goena beti hausten baita, lehenago edo geroago. ●

Izena duenak badu izena



**BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA**
IRAKASLEA ETA
IKERTZAILEA

Bai, bai, holaxe. Ez naiz harago joatera menturatzen. Pleonasmobat dela? Tautologia bat agian? Baliteke, baina egia-oste deitzen dioten garai honetan, oinarri-oinarrizko egitateak beharrezkoak dira. Begira, bestela, “Ez da ez!” lelo indartsuari. Bagenekien hori horrela zela lehenagotik ere, baina egia bat mila aldiz esateak ez du gezur bilakatzen.

Harago joatera menturatzen da Leire Zalakain Trianni, zeinak artikulu jakin-garri bat argitaratu berri baitu Euskal Herriko eta Eskoziako izendapen-patroien gainean. Honela hasten da haren lana, ingelesetik euskarara nola edo hala ekarrita: “Denok dugu izena. Denok ditugu geure izenarekiko iritziak, baita besteekikoak ere. (...) Maiz, iritzi hori lotuta egoten da pertsona baten izenak haren identitateaz agertzen duenarekiko guk dugun hautematearekin. Izen batek adieraz dezake pertsona baten generoa, adina, klasea, arraza, nazionalitatea (...). Ezin hobeto jabetzen gara denok, beraz, izenen ahalmen identitarioaz”. Konbentzitu nau Zalakainek;

Guraso progre-jator asko azkenaldian 'norguayagoka' moduko batek bizi ditu, gaitu, nork jarri izen bereziagoa bere seme-alabei, ezohikoagoa, bakanagoa

izena duenak badu izena, dudarik gabe, baina zerbait gehiago ere bai.

Izan ere, oraindik tripa barruan den umearen sexuari buruz galdetzea delikatu bihurtu denetik, saihezbidea hartu eta zuzenean izenagatik galdetu ohi diet maiz gurasoei. Gainera, Zalakainek arrazoi izatekotan, pentsa zenbat informazio atera dezakedan erantzunetik. Eta egia-oste deitzen dioten garaia halakoa bai-

ta, guraso progre-jator asko azkenaldian *norguayagoka* moduko batek bizi ditu, gaitu, nork jarri izen bereziagoa bere seme-alabei, ezohikoagoa, bakanagoa.

Frantsesa praktikatzen laguntzen didan solaskide suitzarrarekin horixe etorri zen hizpidera aurreko batean: zer adierazten du seme-alaben izen bakoitzaren hautuak gaur egun? Gaia bere luze eta zabalean zirrargarria bazait ere, guraso progre-jatorron hautuetara mugatu nintzen batez ere. Bada, solasaldiaren ondoren, parkera atera, eta izandako berriketa aipatu nion gurasotasun progre-jatorrean kide dudak gizon bati, eta irri egin zidan: “Ze, ez duzue gai askorik aurkitzen hitz egiteko, ez?”. Josep Plaren *amics*, *coneguts* eta *saludats* [lagunak, ezagunak eta agurtuak] eskalan, ordura arte lehen bien artean zalantzarik baldin banuen, bigarren kategorian finkatu zen.

Nolanahi ere, izenena kontu korapilatsua da. Badut beste *conegut* adinkide euskaldun bat Zigor izena duena, eta Irungo haur-eskola batek Kuttuna du izena... baina baita hiri bereko joko-areto batek ere. ●

EuskarAbentura

espedizioa

2025

2008, 2009 eta 2010*
urteetan jaiotako gazteentzat!
*aukera hau bakarrik Lapurdi, Baxe-nafarroa,
Zuberua eta diasporako gazteentzako

Izena emateko azken eguna:
2025eko martxoak 5
Hautatuen zerrendaren
argitalpena: **2025eko apirilak 22**

HAUTAGAITZA AURKEZTEKO

„honakoa aurkeztu behar duzu:
**PROIEKTU BAT +
AURKEZPEN BIDEOA**
Informazio gehiago:

@euskarabentura @euskarabentura2025
www.euskarabentura.eus
izenematea@euskarabentura.eus

Patroiz

bbke

Bizkaia

Bilbao

Koiku

ARGIA

naiz

Getxo

CEU

UN

ALC

TEKON

WELCOM

Bizkaia

CEU

UN

ALC

TEKON

WELCOM

OROIMEN HISTERIKOA

Nagore Irazustabarrenaren podcasta

*Historia diren istorioek txoratzten
gaituztenontzako saioa*



Asteartero
ARGIAN eta
audio plataforma
guztietan

 ARGIA.eus/podcast

“ ”

COPELen leloa argia zen: Amnistia ala ihesa

Banku atrakatzailea, preso, Trantsizio garaian espetxetan borroka historikoa piztu zuen COPEL taldeko sortzailea, euskal talde armatuetako kideen laguna, ostalaria, militantea, libertarioa, ortuzaina. Gauza asko izan da eta da oraindik ere Daniel Pont. Abenduan Girona utzi eta Euskal Herrian itzulia egin zuen bere bizitza jasotzen duen liburua aurkezteko, *Entre el azar y la necesidad. Historia de una vida* (Zoriaren eta beharraren artean. Bizitza baten historia, Virus).

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Gerraosteko frankismo betean jaio zen Daniel Pont, Madrilen, 1949an. “Jaiotzatik bazterrean”, dio, gerrako galtzaileen bandoan, ama ezkongabe eta aita ezezagun baten semea. “Garai hartan ama ezkongabea izatea estigma izugarria zen”, gogoratu du.

“Maitasunik gabeko haur triste bat”, gordin oroitzen ditu Pontek bere bizitzako lehen urteak. Eta hori amak barne-tegi eskola batean sartzeko *zortea* izan zuela: “Diziplina oso zorrotza, zigorrak, biolentzia mojen eta hezitzaileen alde-tik, gosea. Platan azalak lurretik hartu eta jan izana gogoan dut”.

Etxean ere biolentzia nagusi, aitaordearena, amaren aurka. “Gerraosteko gizon galtzailearen eredu, otzana, alkoholikoa, bortitza...”. Horregatik egin zuen ihes Pontek etxetik 14 urterekin, lehenik, eta 16rekin, ondoren. Andaluziako kostaldera jo zuen orduan, gazte talde batekin elkartu eta parrandak eta lapurreta txikiak uztartu zituzten

Guardia Zibilak atxilotu eta epaileak Algecirasko espetxean sartu zituen arte, oraindik 16 zituela.

ESPEXEA, LEHEN ALDIZ

Bost urte emango zituen espetxean, horietako hiru lan behartuak egiten. “Pobrezia izugarria, analfabeto asko, biolentzia ikaragarria” aurkitu zituen lau hormen artean.

Espetxealdi haren tarte handiena Teruelgo Espetxeko Gazteen Erreformatorioan bete zuen, Aragoi, 21 urtez azpiko ehunka gazteren artean. Han egin zuen estreinakoz harremana euskaldun batzuekin: “Iruñeko *nabarrikoen* lagun egin nintzen, aldi berean EGIko preso politikoen lagunak zirenak, ETAren sorburu izan zena, eta berehala konektatu nuen politikoen komunarekin. Horrek balio izan zidan, batetik, babesa izateko, eta, bestetik, nire elikadura eskasia gainditzeko, baliabide gehiago zutelako eta partekatzen zituztelako”.

1972ko urtarrilean irten zen Araba-

ko Langraitzeko espetxetik, 21 urterekin, “zainak gorrotoz beteta” eta hutsik poltsikoak, Madril jaioterrira bidaiatzeko ere dirurik gabe.

ATRAKATZAILE AMATEUR

Madrilen, Teruelgo espetxean egindako lagun batek kontatu zion banku bat atrakatu berri zuela, eta “oso erraza” izan zela. “Animatu nintzen”. Armak behar zituzten, eta horiek eskuratze-ko soldaduska egitea pentsatu zuten. Pentsatu eta egin: kuarteletik pixkana ateratako pistola eta fusilekin “bizpahiru” atraku egin zituzten Madrilgo banketxeetan.

Munta handiagoko lapurreta bat proposatu zioten Ponti orduan. FELIPE Herri Askatasunerako Frontea izeneko talde armatu guevaristako kide batek, Teruelgo espetxean ezagututakoa, tratu proposatu zion: kuarteleko arma biltegiko arma saldo baten trukean, dokumentazio faltsua. “Hori egina dago”, erantzun zion. Baina egin aurretik atxi-



lotu zituzten bera eta taldekideak. “Bitxi-denda batean egin genuen atraku batengatik, egin nahi ez nuena gainera, beti izan naiz bitxi-denden aurkakoa”, azaldu du. Madrilgo Gran Vían tiroketa izan zuen Pontek lau poliziarekin. Tiroketan bi poliziaz gain herritar zibil bat zauritu zuen, larri, baina azkenik onik irten zen eta Pont zigor luzeago batetik libratu zen.

ZULOAN BERRIZ ERE

1972 urtea amaitzear zen Pont Madrilgo Carabancheleko ateak berriz ere zeharkatu zituenean, kaleratu zenetik 11 hilabetera.

Ihesean “etengabe” pentsatzen zuen Pontek, “baina ez nintzen oso trebea izan, ez nuen inoiz lortu”, dio, irribarretsu. 1975ean aukera bat sortu zen. ETA

1975ean Carabancheleko ETApm-ko kideek haiekin ihes egitera gonbidatu zuten Pont, baina kartzelariak tunela aurkitu zuten

politiko-militarreko kide Patxi Arana eta Iñaki Aramaiorekin harremana egin zuen, “kontatu zidaten tunel bat egiten ari zirela”. Denbora batera, laguntza bila joan zitzaizkion ETako presoak: “Tunela oso aurreratua zuten, baina ez zekiten kaleraino helduak ziren edo ez”. Iheslari batekin jarri zituen kon-

taktuan, “buru-argia tipoa, irudimen izugarria zuen”. Periskopio bat eraiki zuen tutu eta ispilu batzuekin, eta hari esker jakin ahal izan zuten zenbat falta zuten kalera heltzeko.

Ihesa prest, ETApm-ko kideek Pont eta bere taldea gonbidatu zituzten haiekin joatera. Ordurako komunan bizi zen, dena partekatuz, beste hamar bat presorekin batera, “denak atrakatazailleak”. Taldekide batek traizionatu zituen, ordea, eta kartzelariak tunela topatu zuten.

COPEL, AMNISTIA “OSOA”

Andaluziako Puerto de Santa María tristeki famatura eraman zuten Pont. “Diziplina gizagabea” zen hangoa, eta isolamendu ziegatan lagun egin zituen “kontzientzia independentista” zuten

hiru preso bretoi. Bretoiek *Libération* egunkaria jasotzen zuten, eta hura irakurrita jakin zuten Pontek Frantzian, Italian eta Europako beste herri batzuetako espetxeetan borroka entzutetsuak burutzen ari zirela preso sozialak. Horregatik, 1976an berriz ere Carabanchelera eraman zutenean, heldu bezain laster eta “konfiantzazko” beste bost presorekin batera, Coordinadora de Presos en Lucha COPEL sortu zuten (Borrokan ari diren Presoen Koordinadora). “Presatu beharra zegoela ikusi genuen, hamaika arrazoiengatik”.


Hamaika arrazoi, baina bat zen nagusia: Franco hil berri eta Trantsizio betean, amnistia agenda politikoaren erdian zegoen, sumatzen zen helduko zela... eta preso *politikoei* bakarrik eragingo ziela. Preso guztien amnistia aldarrikatu zuen COPELek testuinguru hartan. Argudiatu zuten haiek ere zergati politikoengatik zeudela preso: diktaduraren errepresioaren, pobrezia sortzen zuen sistema ekonomiko baten eta pobretuak zigortzen zituen zigor sistema baten ondorioz. “Diktaduratik demokraziara benetan aldatu nahi bazen, ondorioak desagertu behar ziren”, azaldu du Pontek.

COPELek “preso sozial eta politikoentzako amnistia osoa” aldarrikatu zuen, baina baita epaile, polizia eta kartzelari frankisten “garbiketa” edo zigor kodearen “erreforma sakona” ere. Ordura arte presoak “arruntak” edo “politikoak” ziren, haiek izendatu zuten beren burua preso “sozial”.

MUTINAK, GREBAK, AUTOLESIOAK

“Propaganda eta agitaziotik hasi ginen”, oroitu du Pontek, klandestinoki egin eta patiora botatako ehunka eskuorriak gogoan. Edonola, preso sozialen mobilizazioek eta haien “kontudentziak” oso azkar egin zuten gora: lehenbizi asanblada irekiak eta manifestazioak, tailer greba ondoren, gose grebak laster, mutinak, teiltadura igoerak... eta autolesioak. Presoek ebakiak egiten zituzten beren sabel edo besoetan zorua odolez blaituz, edo koilarak eta beste-lako objektuak irensten zituzten ospitaleratzea behartzeko. Helburu nagusia COPEL-en borrokari oihartzuna ematea zen inpaktu eta ikusgarritasun handiko irudiekin, baina baita ospitalera irtetea ihes egiteko aukeren bila ere. “COPEL-en leloa argia baitzen: amnistia ala ihesa”.

Lehen mozketak epaiketa batean an-



Zeruko Argiaren 1979ko ekainaren 24ko azala, COPEL-i eskainia. Barruan, Daniel Pont eta Alejandro Etxaniz COPELeko kideen hitzak jaso zituen Pilar Iparragirre kazetariak erreportaje zabal batean.

tolatu zuen COPELek, 1977ko maiatzean, eta Pont eta haren kide atrakatazailleak izan ziren protagonistak. “Niri tokatu zitzaidan epaiketa apurtzea”, gogoratu du. Senide eta aldeko militantez beteriko aretoan baimenik gabe hasi zen COPEL-en komunikatua irakurtzen, eta epaileak aretoa husteko agindua eman zuenean, presoek besoak moztu zituzten ahoan ezkutatuta zituzten bi-

zar-xaflekin. “Zorua odoleztatu genuen lehen aldian izan zen, odol dezenterekin”. Epaiketa gehiago saboteatu zituzten horrela COPELeko kideek, eta espetxetako patioetan mozketak eta irenste kolektiboak egin zituzten. Mozketen borroka moldea “Aljeriako erresistentziaren esperientzia” jasotzen zuen Miguel Castells euskal abokatuaren liburu batetik atera zuen Pontek berak.

KANPOAN BABESA, BARNEAN ELKARTASUNA

Kanpoan babesarekin zabal izan zuten preso sozialek urte haietan, Pontek esker onez gogoratzen duenez: abokatu taldea, senideen kolektiboak eta militantenak, nagusiki jatorri anarkistakoak baina ez soilik, “eta garaiko hedabideek, oro har, ahotsa eman zieten gure borrokei”.

Carabanchel izan zen COPEL-en “zentro neuralgikoa”, baina azkar hedatu zen: “Berehala jarri ginen harremanetan Bartzelonako Modelo espetxearekin, Euskal Herrian Basauri eta Martutenerekin, Sevillarekin, Valentziarekin, Valladolidekin... harreman oso arina eraiki genuen, kartzela bakoitzean borroka sortzeko aukera ematen zuena”.

Amnistia aldarrikatu edo espetxearen aurka borrokatzeaz gain, presoen arteko harremana ere eraldatzeko borrokatu zen koordinadora. “Espetxeko bizitza berrantolatzen saiatu ginen, kanpoko gizartea ez birproduzitzeko: errespetua, abusurik ez, asanbladak,



Presoen senideak espetxean piztutako borroka bati sustengua adierazten.

partekatzea, komunak...”. Asanblada irekiak ziren mugimenduaren oinarria “segurtasunagatik talde murriztuetan hartu behar ziren erabaki batzuk salbu, ekintzak-eta”.

1977ko urrian preso politikoentzako Amnistia Legea onartu zuen Espainiako Kongresuak. Borroka behin betiko galtzeko arriskuaren aurrean, preso sozialek “etsi-etsian” erantzun zuten, COPEL *una historia de Rebeldia y Dignidad* (COPEL errebeldia eta duintasun historia bat) dokumentalak jasotzen duenez –Pont bera da egileetako bat–. Gose grebek, mutinek, autolesioek gora egin zuten, berdin biolentzia giroak oro har. “Estatuak erreakzionatu egin zuen, gure dinamika gelditu beharra zuela ikusi zuen, une politiko klabea zelako dominazio modu berria finkatzeko: *Transakzioa*”.

AZENARIOA ETA MAKILA

Espetxetako gatazka zurrumbilo betean sartu zen. 1978ko martxoaren 13an kartzelarietxerako iheserako tunel bat aurkitu zuten Carabanchelen eta arduradun egin zituzten zazpi presoak torturatu zituzten, tartean martxoaren 14an hil zen Agustin Rueda Sierra, “kide anarkista eta COPELeko militante konprometitua”. Zortzi egun beranduago GRAPO talde armatuak Jesús Haddad hil zuen, orduko Espainiako Espetxe Erakundeetako zuzendari nagusia. “COPELEN borrokaren aurrean estatuak azenarioa eta makila tartekatzen zituen”, dio Pontek, eta une hartan, ezustean, azenarioa lehenetsi zuen gobernuak. Carlos García Valdés izendatu zuen zuzendari Haddaden ordean, *aurrerakoia* eta preso sozial eta politikoen abokatu izana. García Valdés Pontekin bildu nahi izan zuen bakarka, “baina ez nuen onartu, esan nion kolektibo bat ginela, eta azkenean onartu zuen guk hautatutako hamar pertsonako ordezkarietarekin biltzea, ni tartean”. Zuzendariak aldaketak agindu zituen, eta espetze barruko bizitzan “kogestio” eredu bat sustatu zuen. Giroa lasaitu zen denbora batez, denbora tarte oso laburra: 1978ko ekainean 45 presok ihes egin zuten Bartzelonako Modelotik (gogoratu leloa, “amnistia ala ihesa”), eta García Valdés behin betiko makila aukeratu zuen.

COPELeko kideak jipoitu, sakabandatu eta isolatu zituzten, kogestioa baztertu eta diziplina zorrotza berrezarri zuten espetxetan. Ordurako heroina



1977an presoak mutinatu eta Carabancheleko teilatua hartu zutenean, igo aurretik argazkia egin zuten bost ikurrekin: COPELena, anarkista eta Herrialde Katalanetako, Galiziako eta Euskal Herriko bandera bana.

COPELEK “preso sozial eta politikoentzako amnistia osoa” aldarrikatu zuen *Trantsizioan*

presoen artean libre zebilen kartzelarien bistan, drogaren menpe zeuden presoak bete ziren patioak, eta presoan arteko elkartasuna hausten hasi zen. COPEL eta bere borroka ahultzen joan ziren, 1979an erabat desagertu arte.

Datuetan laburbiltzen du COPELEN dokumentalak mugimenduaren borroka: 1976an bi gose greba kolektibo eta hamarnaka mutin; 1977an 29 mutin, 11 gose greba, hamasei autolesionatze kolektibo, hamarnaka ihesaldi saiakera, ehunka elkartasun ekintza kalean; 1978an 11 mutin, bi preso hilik Zaragoza eta Basauriko suteetan, 400 autolesionatu, eta 62 preso ihes eginak.

“HAU SOILIK EUSKAL HERRIAN GERTATZEN DA”

Taberna bazterreko mahaian ari gara kalakan, mutinak eta autolesioak gora, jipoiak eta heroina behera. Lotsati hurbildu zaigun gizon adindu batek eten digu haria. “Barkatu, ondoko mahaian nengoen kasualitatez, zurrumurruan bezala heldu zaizkit espetxea, ihesa... entzuten jarri naiz... pentsatzen dut elkarrizketa bat egiten ari zaretela, eta etorri naiz esatera: mila esker”, bota

digu. “Zer edo zer ulertu dizut”, erantzun dio Pontek, eta han hasi dira, “Espetxean egon nintzen 1969-70-71 urteetan, ETAko militante izateagatik”; “Ezagutuko zenuen orduan Urria...”; “Sendiak Basauritik egin zuen ihes...”. Izena zein duen galdetu diot. “Berdin dio, gernikar bat. Nola joan zaizu bizitza?” zuzendu zaio berriz ere Pontek; “Ia zorionsu naiz orain”, erantzun dio. Bidean pilatutako hildakoak eta sufriemendua azeleratu dira orduan, batak bestearen borrokari aitortza egin dio, eta heldu bezala joan da, ia oharkabean.

“Ze ona, hau Euskal Herrian soilik gertatzen da”, esan du Pontek irribarretsu, berriz ere bion arteko kalakari heltzeko.

SOZIAL ETA POLITIKOAK

COPELeko kideek adiskidetasuna gartu zuten ETA militarreko eta politikomilitarreko zein Komando Autonomo Antikapitalistetako kideekin, eta babesa eman zieten elkarri hainbat unetan. “Babes argia eta irmoa. Esker on handiz gogoratzen ditut garaiko ETApn-ko hainbat kide, Wilson, Ezkerra, Meltxor, Danel... Konpromiso handiko babesa zenbait kasutan, kontaktu ezin dudana”. COPELek Euskal Herriko borrokak eta oro har estatuko nazioenak babestu zituen, halaber. 1977an presoak mutinatu eta Carabancheleko teilatua hartu zutenean, igo aurretik argazkia egin zuten bost ikurrekin: COPELena, anarkista eta Herrialde Katalanetako, Galiziako eta Euskal Herriko bandera bana. “Uste dut nik neuk atera nuela argazkia”, saiatu da oroitzen.

Abenduaren 12an ari gara elkarrizketa egiten. Abenduaren 13an, hurrengo egunean, 47 urte bete(ko) dira Fran Aldarondo Ondarru espetxetik irten zela. 1977ko amnistiarekin espetxetik atera zen azken euskal preso politikoa izan zen ondarruarra. “Ez du axola azken preso politikoa izatea. Oraindik preso sozialak falta dira, marjinatuak”, adierazi zuen egun hartan, ETaren eta COPELen pegatina bana paparrean zituela, Wikipedian irakurri daitekeenez. Aldarondo ETako kide zen orduan, 1978an Komando Autonomoetan sartu zen, eta 1979an Guardia Zibilak hil zuen. Urdailean COPELen protesta batean irentsitako koilaratxoak zituela hobiratu zuten. *Cárceles en llamas* liburuaren hitzaurrean, hain zuzen ere, Aldarondorentzako esker hitzak ditu Pontek. “Oilo ipurdia jartzen zait oraindik ere oroitzean”, dio, hunkituta.

‘MAFIA POLIZIALAK’ TORTURATUA

“Euskal Herria idealizatuta nuen, bertan iraultza egin zitekeela sinetsita nengoen”, dio Pontek. Akaso horregatik, sei urteren ostean 1979ko martxoan espetxetik irten zenean, Donostian bizitzen jarri zen. COPELeko kide, atrakatzaille eta lagun Pulpok, azpeitiarra, gurasoen etxera eraman zuen, eta haiek eman zioten “aterpea

Lehenbizi asanblada irekiak eta manifestazioak patioan, tailer greba ondoren, gose grebak laster, mutinak, teilatura igoerak... eta autolesioak

eta jana”. Denbora gutxira, Pulpo eta biek banku bat atrakatu zuten Boulevardean, eta eskuratutako diruarekin etxe bat hartu zuten alokairuan. “Egonkortasun eta independentzia ekonomikoa lortzeko lehen urratsa izan zen”.


Beste atraku txikiren bat ere burutu zuen Pontek. “Ez zen horren zaila, eta babes soziala zegoen, jendeak ondo ikusten zuen bankuei lapurtzea”. Baina, berriz ere, apenas izango zuen tarterik kalera egokitzeko espetxeratua izan aurretik.

1980ko urtarrilean, kalean zortzi hilabete soilik zeramatzala, ‘mafia polizialak’ atxilotu zituen Pont eta bere taldea. “Delitugile sozialei Lege Antiterrorista aplikatu zitzaaien lehen aldia

izan zen”, gogoratu du: “Komando Autonomoetako bi kiderekin Hendaian izan nuen bilera bat detektatu zidan Poliziak, eta epaileari eskatu zion Lege Antiterrorista aplikatzeko”. Baina Poliziaren helburua atrakatzaille taldea bera zen.

Hamar egunez izan zituzten inkomunikatuta, lehenbiziko seietan torturatu zuten Pont: “Tortura oso gogorrak, nahi zuten sinatzea antzeman zizkiguten hiru errebolber nik ekarri nituela Parisetik”. Onartu zuen azkenik, seigarrenean, eta torturak Trombocid pomada kiloei utzi zioten lekua kalabozoetan, epaile aurretik pasatzerako ahalik eta itxurosoen egon zedin. “Trombocidaren aipamenak sastada eragin dit urdailean, hogeitau urte beranduago torturatu zuten lagun batek gauza bera kontatu zidan, Trombocidez estali zutela behin autoinkulpazioa sinatuta”, aitortu dio kazetari honek. “Gauza batzuk ez dira aldatzen”, dio.

“Gure atxiloketa ‘mafia polizialak’ antolatuta zuen, eta babesa eman zien Barrionuevok [José Barrionuevo, orduko PSOEren Gobernuako Barne ministroa]. Nahi zutena egiteko baimena zuten, delinkuentzia komuneko atrakatzaille talde asko zeudela argudiatuta. Garbiketa egiteko agindua zuten”. Taldearen existentzia ez da Ponten egia soilik, egia



COPELen borroka ezagutzeko hiru euskarri aparteko: *Entre el azar y la necesidad. Historia de una vida* liburua (Daniel Pont eta Ignacio Gonzalez, 2024, Virus), COPELeko fundatzaile baten autobiografia; *Cárceles en llamas, el movimiento de presos sociales en la Transición* liburua (Cesar Lorenzo, 2013, Virus), COPELen borrokaren azterketa dokumentatu eta akademikoa; *COPEL, una historia de rebeldía y dignidad* dokumentala (Metromuster eta COPELeko preso ohiak, 2017), COPELeko presoek egina haien lekukotza zuzenekin.

judiziala baizik. Urtetara hainbat polizia epaitu zituzten, gehienak absolutu bazituzten ere. Orduan bataiatu zituzten hedabideek ‘mafia polizial’ izenarekin. “Polizien talde bat zen, egingo ziren atrakuen informazioa jasotzen zuen, eta informazioa ematen zien atrakataileei atrakuak egin zitzaten. Egiten uzten zuten, eta ondoren atrakatazailerak hiltzen zituzten. Lapurtutakoarekin edo horren zati batekin geratzen ziren”. El Nani famatuaren desagertzea haiei leporatu zaie, besteak beste. Taldearen bizkarrezurra Madrilen zegoela dio Pontek, baina Bilbo eta Donostiako komisarietan ere bazirela kideak.

ANDALUZIAN EUSKARA IKASTEN

Puerto de Santa María eraman zuten berriz ere Pont. “Ordurako ez zegoen COPELen eta presoan arteko elkartasunaren arrastorik”. Besteak beste euskara ikasten eman zuen denbora, Itziar izeneko lagunak sartutako liburuekin. “Itziar, Zeruko Argia izeneko aldizkari batean idazten zuen kazetaria (elizaren aldizkaria zen, marxista antzekoa)”, dio liburu autobiografikoan. Izan ere, 1979ko ekainean azala eskaini zion COPELen borrokari *Zeruko Argiak*, Pont eta Alejandro Etxaniz COPELeko kide ohiak elkarrizketatuta. Elkarrizketa osteko afaritik bestelako harremana sortu zen. “Atxilotu ninduten arte mantendu genuen, gero irtetea zenbaitetan elkartu ginen. Kariño handiz oroitzen dut, *Txorua* deitzen ninduen”.

Hilabete gutxi eman zituen preso, edonola ere. Berak eta bera salatu zuten bi kideek helegitea aurkeztu zuten, esanez torturapean sinatu zituztela deklarazioak, eta *garbi* irten zen espetxetik.

ATRAKATZAILE PROFESIONAL ETA OSTALARI

Berriz ere Euskal Herrian, berriz ere atrakuak ogibide. Baina beste modu batera.

Pont eta lagunak taldea handitu eta “profesionalizatu” egin zen: “Garbiketarak egitetik (kutxan une horretan zegoena hartu) pasa ginen irekierak egitera (bankuan ordu bete inguru itxaron behar zenuen kutxa blindatu nagusia ireki arte, hori konplexuagoa da)”. Bi atraku egin zituzten Gipuzkoan, hirugarren bat Iruñean, bere bizitzako azkena Gasteizen. “Iruñekoa izan zen potentena, ekonomikoki aukera eman zidan etena egiteko”.

Eten hori baliatu zuen, hain zuzen ere, 1982an bere bizitza goitik behera



Presoak autolesioak egiten Kordobako espetxean, 1977ko udazkenean.

“Euskal Herria idealizatuta nuen, bertan iraultza egin zitekeela sinetsita nengoen”

aldatuko zuen erabakia hartzeko. Erabakia bat egin zuten hiru faktoreren ondorioa izan zen. Batetik, “kideak kokainaren eta zaldiaren gero eta menpekoago ikusten nituen”, lagun harremana baldintzatzeaz gain lanbiderako arriskutsua zena. Bigarrenik, Komando Autonomoen inguruko ezagunek eskaerak egiten hasi zitzaizkion: lehenik *Askatasuna* aldizkari libertariorako idatzi bat, gero ihesaldi baten krokisa, aurrerago Puerto de Santa Mariako lagun bretoi independentistekin “beren gauzetarako” harremanetan jarri... “Ikusten nuen gero eta konpromiso gehiago hartzen ari nintzela, ez dakit militatzen amaituko nuen, baina konprometitu bai”.

Hirugarrenik, eta testuinguru hartan, maitemindu egin zen Pont, bere abokatu izandako Begoñarekin. “Bere

etxean agertu nintzen, diruz betetako poltsa batekin, zer zegoen azaldu nion, eta bizitza berria egin nahi nuela, berarekin”. Eta horrela egin zuten: atrakuen diruaren parte batekin pub bat ireki zuten Almeriako kostaldean. “Nire bizitzako urterik zoriontsuenak izan ziren”.

BIZITZA ARRUNTA, EDO IA

Erabakia bizitza *arrantago* baten hasiera izan zen, baina mugimendu handikoa halere. Urte luzeotan eta Almeriako esperientzia amaituta, bizi izan da Asturiasen, Madrilen, Valentiako kostaldean edo Bartzelonan. Hainbat taberna ireki zituen atrakuen diruak baliatuta –horietako bat Madrilgo erdigunean, zeinera goi klasea joaten zen, tartean Cristina Borboikoa infanta-. Presoen alde edo turistifikazioaren aurka militatu du. Asturiasen aita izan zen Paquín orduko bikotearekin, eta Yoar izena jarri zioten beren alabari (ez zieten utzi Ioar jaritzen): “Espetxe garaian, oso baztertuta izan zen idazle nafar baten inguruko artikulua irakurri nuen *Pamiela* aldizkarian, eta garai baten kronikak idazten zituela berak asmatutako Ioar Errepublikatik, non ez zegoen apaizik, ez poliziarik, ez autoritaterik. Hortik izena”.

Bizitza arruntagoa, esan dugu, baina ez azken susto arriskutsu bezain nobeleskorik gabea. 1985ean, lagun atraka-



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

ARGIAren *Txori Urdinak* liburuan bere bizitza aletzen duen Santi Cobos eta Daniel Pont Kaxilda liburutegian. Santik Danielen liburuaren aurkezpen solasaldian hartu zuen parte, Donostian; Danielek Santirenean, Bartzelonan.

tzaile batzuek azken kolpe handi bat proposatu zioten, handietan handia: Madrigo Banestoko sukurtsal batetik ehunika milioi pezeta eramatea. “Ni ordurako erretiroa hartuta nengoen”. Baina atrakurako informazioa poliziaren salatari batek emana zela jakitean, kideei esan zien ez zuela ezer jakin nahi, baita gomendatu ere bertan behera uzteko dena. Susmo bat zuen Pontek: ‘mafia poliziala’ zegoen atzean, eta atrakua baliatu nahi zuen bera zepoan harrapatzeko berriz ere. Hori ekiditeko eta atrakua hurrengo egunean egingo zutela jakinik, goiz hartan ezagunen bi abokatu bulegotatik pasatu zen Pont, ustez lagunei bisitan. Atrakatzaileek 1.200 milioi pezeta eraman zituzten dirutan eta bitxietan, poliziaren arabera. Arratsalde hartan bertan eskaini zioten zati bat lagunek, parte hartu ez bazuen ere, baina ez zuen hartu nahi izan. Hurrengo egunean, Pont atxilotu zuten, jarraian espetxeratzeko. Baina, besteak beste bisita haiei esker, bere errugabetasuna frogatu ahal izan zuen, eta, tartean gose greba eginda, bi asteren buruan libre utzi zuten laugarren eta azken aldiz.

“Pertsonak zigorraren bidez hezi daitezkeela pentsatzean dago akatsa”

AROMATERAPIA ETA ABOLIZIONISMOA

Gironan bizi da Pont gaur egun, Herrialde Katalanetan, atrakuetatik aspaldi egin bezala bezala soldatapeko lanetik ere erretiroa hartuta. Lasai, eta bere ortuko landareekin lantzen duen aromaterapiari emana. Baita egitasmo militantei ere. Erretiroa “erabat” hartzeko, izan ere, azken proiektu bat burutu beharra duela baitio: espetheen abolizioaren aldeko eta punitibismoaren aurkako dokumental bat.

Agortu zaigu solasaldirako denbora, aurreikusitakoa baino askoz gehiago luzatu gara, eta, liburu aurkezpen batek bestera, Donostiara eraman behar duen txoferra zain dugu aspaldi. Mel-

txor ari zaio txofer lanak egiten egunotan. Meltxor, Segoviako ihesaldiko txoferra eta COPELen garaian egindako lagun mina. Baina ez du alde egingo bere azken proiektua azaldu gabe.

“Kartzelak pertsona deuseztatzeko besterik ez du balio, han ez da inor onbideratzen”, adierazi zion Pontek *Zeruko Argiari* 1979ko ekainean. Antzera pentsatzen jarraitzen du 2025ean: “Klase gizarteak dirauen bitartean pobreentzako zigorra eta espetxea egoten jarraituko dute. Zigorraren kulturak milaka bizitza prekario zeharkatzen ditu kontinente guztietan: migratzaileak, arrazializatuak, pobretuak...”.

Bi urte dela hasi ziren dokumentalean lanean, eta aurten amaitzea dute helburu. Iraganen eta munduan ikertu dute “gatazken konponbide asanblearioko” eredu bilatu, eta egungo pentsalari eta ekintzaileak ere elkarrizketatu dituzte, tartean Bartzelonatik pasa zen Angela Davis. Hausnarketa sustatu nahi du Pontek, eta hausnarketarako esaldia utzi du Donostiara abiatu aurretik: “Pertsonak zigorraren bidez hezi daitezkeela pentsatzean dago akatsa”. ●

FRANCISCO VAQUERO

BIZITZA EZ-BERRIZTAGARRIAK DOKUMENTALAREN EGILEA

“Euskal Herria makroproiektu berriztagarren aurka borroka gehien egiten ari den lurraldea da”



Makroproiektu “berriztagarriek” sortzen dituzten ondorioak filmatu ditu *Vidas irrenovables* (Bizitza ez-berriztagarriak. Euskarazko eta frantsesezko azpтитuluak prestatzen ari dira) dokumentalean Extremadurako (Cabeza del buey, Espainia, 1985) landagunean hazitako zuzendari independente honek. Herriz herri eta bera bertan dela ematen ari da filma eta Euskal Herrian irailetik martxora 30 emanaldi egingo ditu. Orain artean inor ez da sartu bezala atera aretotik dokumental hau ikusi ostean...

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Oinarrizko hautu batzuk egin dituzue dokumentala planteatzerakoan. Independentzia izan da lehen. Zer da hori praktikan?

Hamabi urte daramatzagu Metáfora Visual ekoiztetxean eta lehen sei urteetan beste enpresentzako publizitatea soilik egin genuen. 2019an gure dokumentalak egitea erabaki genuen eta argi genuen %100 independente egin nahi genituela, inolako laguntza publikorik eta ekoizle pribatuen elkarlanik gabe. Zergatik? Horrek baimentzen digulako produktuaren jaun eta jabe izatea, libre pentsatzea zer kontatu nahi dugun, nola, noiz hasi nahi dugun lanean...

Ekoiztetxeak publizitatea eginez ira-

bazten duen dirutik zati bat aurreztu egiten dugu gure dokumentalak egiteko. Baina noski, modu independentean egiteak arrisku askoz handiagoa du, norberak bere gain hartzen du gastu osoa, eta beraz, ondoren arduratu behar dugu filma asko proiektatzeaz, errendimendua lortzeko. Horrek mugitzera behartzen gaitu eta publiko bat sortzen laguntzen digu: dokumentala ematearekin batera aurkeztu egiten dugunez, jendearekin aurrez aurreko harremanak sortzen dira, eguna partekatzen dugu... Zinema egiteko modu hori oso aberasgarria da. Eta etorkizunera begira, badakigu publiko bat badugula, egingo duguna agian interesatuko zaiona.

Beste hautu bat izan da makroproiektu eoliko eta fotovoltaikoen aurka mobilizatzen ari diren herritarrei hitza ematea eta, aldiz, enpresak eta gobernua ez elkarrizketatzea. Zergatik?

Gaia ikertzen hasi ginenean, planteatzen genuen aukeretako bat bazen enpresak eta erakundeak elkarrizketatzea. Baina filmatzen joan ahala, eta pertsonak ezagutu heinean, ikusi genuen urte pila zeramatzatela borrokan, entzunak izan zitezten erreguka, kontuan hartuak izan zitezten eskatzen, debatea egon zedila aldarrikatzen, haien bizitzetan zer eragin jasaten ari ziren ikusteko eskatzen... eta ez zitzaaien kasurik egiten. Horregatik, erabaki genuen ez geniela minutu bakar bat emango ez enpresei eta ez administrazioei, horiek urte asko baitaramatzate masa hedabide guztiak haien bozgorailu izaten, eta nahi duten guztia kontatzen. Erabaki genuen dokumental hau leiho bat izango zela ahotsik ez duten pertsonentzat.

Dokumental partziala dela esan izan dizuete.

Ez dut uste partziala denik, ze gehiengook dugun irudipena da –eta nik ere gauza bera uste nuen honi buruz ikertzen hasi nintzen arte– ez dagoela beste aukerarik, eta kosta ahala kosta egin behar direla... pentsamendu hori orokortuta dago eta

industriak eta erakundeek eman diguten matrakaren ondorioz sortu da. Aurre-idea hori oinarri gisa dugunez, erabaki genuen horrela egitea, beste alderdi osoa ezagutu dadin eta horrela karta guztiak agerian izan ditzagun. ezagutu dezagun nola eragiten dieten pertsonei eta ondoren bakoitzak erabaki dezala proiektu horiek onak edo txarrak diren.

Beste hautu bat izan zen Espainiako estatuko 11 lurraldetako 70 pertsona elkarrizketatzea. 50 ordu zenituzten grabatuta, eta ondoren ordu eta erdira laburtu zenuten: 47 pertsona dira pantailan agertzen direnak.

Horrela egitea erabaki genuen, zeren bi kasutan soilik zentratu izan bagina, arriskua legoke ikus-entzuleek pentsa zezaizen horiek kasu puntualak direla. Hori da jendeak pentsatzen duena: "Gure bailarekin tematu egin dira, proiektuz josi gaituzte"... eta esaten diet, "ez, ez, guztiarekin tematu dira, Pirinioetatik behera ez dago 50 kilometroko erradioko lurralderik tematu ez direnik, beraz, lasai". Baina nola eskualdeko komunikabideetan

“Ez administrazioari eta ez enpresei ez zaie zarata interesatzen, mezua erori egiten zaielako; nahiago dute beste leku batera joan”



soilik ematen zaien herritar horiei aho-tsa, jendeak uste du arazoa berea dela. Arazoa orokorra da. Horregatik erabaki genuen eremua zabaltzea, ikus-entzuleak sentitu dezan iparretik hegora egoerak berak direla. Uste dut lortu dugula.

Kontaktuan jartzea lortu dugun lurralde guztietan filmatu dugu. EAEko proiekturik ez da agertzen, 2023an aritu ginelako filmatzen eta orduan ia ez zegoelako proiekturik. 2024an agertu ziren, gu grabazioa bukatzen ari ginenean, eta hainbeste ordu genituen grabatuta

eta hain aurreratuta genuen kontakizuna... Katalunian berdin gertatu zaigu, eta Balear Uharteetan eta Madrilen ere bai.

Nafarroaren falta nabaritu dut...

Jende askok esan digu, "urte asko daramatzate eolikoekin"... aragoiarrek esan ziguten Nafarroara jotzeko baina ez genuen lortu hitz egingo zuen inor.

Gauza bera gertatu zaigu Extremadurarekin, eta bertakoak gara! Bertako proiektu bakarra agertzen da, mintzo den bakarra abokatua da, eta bera Huescako da. Extremadura proiektuz josita dago baina inork ez zuen atera nahi.

Zergatik ez zuten agertu nahi?

Herri txikietakoak direlako. Agian urte asko daramatzate posizionatuta eta gainera bozgorailu batean agertzen badira, gerta dakieke gatazka handiagoa izatea, seinalatzea... herrietan arrakala handia sortzen da.

Bada dokumentala egiterakoan hartu duzuen beste hauturik?

Ez dugu gidoi itxirik egiten. Lehenik do-



kumentatu egiten gara prentsa eta artikuluko zientifikoak irakurrita. Ondoren, telefonoz hitz egiten dugu pertsonekin eta kontatzen digutenaren arabera bakoitza gai batzuetan kokatzen dugu eta gidoia garatzen goaz, baina gehiegi itxi gabe. Azkenik, elkarrizketarekin elkarbizitza egiten dugu, haiengana goaz, haiekin ematen ditugu lau zapabost egun edo astebete, egunean zehar tarteka grabatu egiten dugu... Esperientziak erakutsi digu elkarrizketarekin konfiantza irabazten dugunean askoz gauza interesgarriagoak kontatzen dituztela, horregatik, jendea ezagutu heinean gidoia aldatu egiten dugu, modu oso librean lan egiten dugu.

Hainbeste elkarrizketa ordu grabatuta izanda, dokumentalean zein gai sartu eta zein kanpo utzi erabakitzeko argi genuen garrantzitsuena zela nola kontatua zegoen, horrek sortzen dituelako emozioa eta enpatia ikus-entzulearengan. Eta hori da aldaketa bat eragin dezakeen gauza bakarra.

Bestalde, ez dugu narratzailerik edo *off* ahotsik erabili: haria josten da protagonistaz protagonista lotzen doazen elkarrizketen bidez. Oso ongi hautatu behar dira sekuentziak bata bestearekin lotu daitezkeen, hariak ikus-entzulea harripatu dezan. Pasarte oso on batzuk kanpo utzi ditugu, haria galtzen zelako.

Iruditu zait paisaia dela dokumentaleko protagonista nagusia: aberastasuna eta sarraskia, biak agertzen dira. Paisaia zer da zuretzat, landaguneko herri txiki batean hazi eta dokumental hau egin duzun horrentzat?

José Simón geologoak dokumentalean esaten duen moduan, paisaia ingurunea biltzen duen guztia da: ondare naturala, ondare kulturala, pertsonak, animaliak, landareak... guztiok gara paisaiaren parte. Proiektu hauek paisaian eragiten duten aldaketa gogorak guztioi eragiten digu. Eragiten die animalia basatiei: alde egitea erabakitzen dute, ez dira eoliko inguruan geratzen, alde egiteko askatasuna badute. Eragiten die etxeko aberreei, horiek kudeatzeko modua aldatzen delako. Eta nahiz eta askok ezetz esan, pertsona ere eragiten die: psikologikoki eragiten du, zure ingurunearekin duzun harremanean. Esaterako, dokumentalean Burgosko bi anaia artzain agertzen dira eta haien aitak, 90 urtetik gora dituenak, duela 25 urtetik, eolikoak egin zirenetik, mendi haietara begiratzeari utzi dio. Noski denoi eragiten digula, bolumen han-

BA AL ZENEKIEN...

Eolikoek sarri uraren ibilbideak aldatzen dituzte, mendiko iturriak galdu daitezke...

Eolikoak jartzen diren lekuak erreken sorburuak izaten dira, iturburuak, urpeko uren kokaleku... Azpiegitura handiak direnez, lur pila mugitu behar da horiek jartzeko eta zimendu izugarriak izaten dituzte. Gai larria da, askok iturri horietatik edaten dutelako.

Eolikoengandik inguruan pasabidea galarazteko afixak jartzen dituzte, objektuak erori daitezkeelako, eta olioia ere erortzen da...

Mantenimendu eskasa dutelako gertatzen da hori. Azpiegitura hauek enpresek ordaindu beharoko balituzte, diru-laguntzek %70-%80 ordaindu gabe, ez lukete bakar bat ere egingo. Oso garestiak dira: garestia da materialak ateratzea, garestia da eraikitzea, garestia da garraiatzea eta garestia da mantenimendua. Eta errendimendua, energia sortzeko duten efizientzia ez denez hain handia (fotovoltaikoaren kasuan gutxienekoa da, %20-%30), egiten duten mantenimendua ia ezereza da: lehen urteetan bai egiten dute baina dozena bat urtetik aurrera ez.

Urte gehien daramatzaten eolikoek goialdea belztuta izaten dute: olio asko izaten dute ardatza lubri-

fikatzeo, eta mantenimendu faltagatik olioia galtzen dute. Denborarekin olio hori iragazi egiten da lurrean, eta hamarkadetan ikusiko ditugun ondorioak dira akuiferoak eta iturburuak kutsatuko dituztela.

Eguzki plakak hautsiz gero oso toxikoak dira...

Ukitzea onuragarria ez den substantzia askoz eginda daude eta kalte hori handitu egiten da plakak degradatzen direnean. Efizienteenak diren plakek kadmioa daramate eta substantzia hori kantzerigenoa da. Horregatik, plakak puskatzen direnean arazoak sortzen dira. Dokumentalean agertzen diren puskatutako plakak, Almerian oraindik sarera konektatu gabe zegoen planta batekoak ziren, estreinatu gabeak, alegia; denborale batek hautsi zituen.

Material horiek ezin dira edozein modutan kudeatu. Uralitarrekin bezala gertatuko da. Kostu horiek nork asumituko ditu? Azpiegiturak desmuntatu aurretik enpresa desagertzen bada nori kontu hartuko zaio? Eolikoengandik kasuan, zutabea birziklatu daiteke altzairuzkoa delako baina besoak birziklatzeko modurik ez dago egun: zuzenean lurperatu egiten dira lekuan bertan. Etorkizuneko arrasto arkeologikoak horiek izango dira.

diko azpiegiturak direlako, hamarkada luzez ingurunea baldintzatuko dutenak.

Filmak mahai gainean jartzen du normalean ezkutatu egiten den gai bat: proiektu hauek herrietan sortzen dituzten gatazkak, dirua dela medio. Adibide positibo moduan agertzen da Teruelgo Matarranya bailara: bertan herritarrek aurre hartu zieten enpresei...

Matarranyako herritarrek ikusi zuten euren inguruko Tarragonako Terra Altako biztanleek nola zeramatzaten 20 urtetik

gora eolikoekin bizitzen; eta ikusi zuten herriak husten joan zirela. Ikusi zuten baita ere Teruelgo beste zonalde batzuei gauza bera gertatu zitzaiela. Eta Matarranyako herritarrek bazekiten lehenago edo beranduago enpresak haiengana ere iritsiko zirela. Horregatik, aurre hartu zieten eta jendea informatzen hasi ziren. Beraz, proiektuak iritsi zirenerako herria kontzientziatuta zegoen. Bailarako udal batzuk hasieran proiektu horien alde zeuden baina herritarrek presio egin zieten udalei herri galdeketa egin zitzaten, eta lortu zuten udalak ere euren alde

jartzea. Horrela saihestu zuten herriko gatazka.

Zerk sortzen du herrietan gatazka?

Gardentasunik ezak. Opakutasun handia egoten da bai enpresen eta bai administrazioen aldetik. Enpresak lurjabez lurjabe joaten dira, denak batera bildu beharrean. Guztiakin bilera egiten duten kasu bakanetan, enpresak nahi duena kontatzen du: hektareako hainbeste ordainduko duela, irabazi handiak ekarriko dituela, lanpostu asko sortuko dituela, herriari diru asko ekarriko diola... Bakoitzak bere buruan pelikula bat egiten du eta lurjabe batzuek baietz esaten dute, beste batzuek ezetz, besteak dudan geratzen dira... Demagun, 20 hektarea dituen lurjabe bati hektareako 1.500 euro agindu badizkiote, 30.000 euro dira urtean, eta hark berehala sinatu du eta desiatzen dago; eta ondoren jakiten du bere bizilagunak ezetz esan duela eta beregatik atzeratzen ari dela proiektua. Hor hasten dira gatazkek.

Udaletatik gardentasun ariketa egingo balitz eta mahai gainean jarriko balitz informazio osoa, ez litzateke egoera horrietara iritsiko. Errespetuz eztabaidatuko litzateke eta patxadaz, ez proiektua gainean daukanaren presarekin. Hainbat alditan, mendi publikoen kasuan herritarrek proiektuaren berri jakin dute Udaletxeek jada dena eginda zutenean. Halakoetan gatazka handia sortzen da, udalaren alde daudenek defendatu egingo dute erabakia, gobernatzaren ari diren politikariek ados ez daudenek kontra egingo dute... gatazka giro larria sortzen da, eta behin elkarbizitza hausten denean oso zaila da berriz osatzea.

Informatu egin behar da eta ez inposatu, bakoitzak hartu dezala bere erabakia, baina gauzak diren moduan esanda: lurjabeari 1.000 eurotik gora ordainduko diote baina horri zergak kendu behar zaizkio; bestalde, lurjabeak diru sarreara bat gehiago izango du eta errenta aitortpena egiterakoan hori ere kontuan hartzen da; landa erabileratik industria erabilerara pasako da lur hori eta horrek bestelako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga bat du; kontratu askotan jartzen duten klausula izaten da argindarraren prezioa jaisten bada luraren errenta ere jaitsi egiten dela...

Katalunian GEPEC talde ekologistak lurjabeek hauxe esaten die: "Nik ez dizut esango sinatu behar duzun edo ez. Gomendatzen dizudana da abokatu baten gana jotzea eta ez ezer sinatzea lehenik



“Enpresen eta administrazioen aldetik egoten den gardentasunik ezak sortzen ditu herrietako gatazkek”



abokatuak kontratua irakurri aurretik”. Kasuen ia %100ean, abokatuak aholkatzen dute kontratua ez sinatzea, ez delako argi geratzen nork desmuntatuko dituen azpiegiturak behin erabiltzeari uzten zaionean, nor den hondakin horien arduraduna...

Hori guztia ez dute kontatzen enpresak eta alde dauden administrazioek.

Dokumentalean agertzen den beste kasu bat da lurjabeak ez badu errenta kobratzen, ez dakiela nori erreklamatu ere...

Arazoa da enpresa horiek normalean instrumentalak direla, gutxieneko kapital sozialarekin sortuak, baimenak eta tramitazioa lortzeko bakarrik, eta behin poligono eoliko edo fotovoltaikoak sortzen direnean saldu edo eskualdatu egiten dituzte, bai industriei edo bai inbertsio funtsei. Finean gauza bera dira, ze elektrika industria handien jabeak eta inbertsio funtsetan berberak dira.

Dokumentala egiterakoan ezagutu ditugu errenta jasotzeari utzi dioten lurja-

beak. Udalak ere ezagutu ditugu, mendi publikoen errenta jasotzeari utzi diotenak. Eta ez dakite diru hori nori erreklamatu. Administrazioari azaldu diote arazoa eta jaso duten erantzuna izan da “hori zuek sinatu zenuten kontratu bat da eta erantzuleak zuek zarete”. Eta askotan, kobratzen ez duen jendeak kontratu duela esaten du, ziria sartu diotela ez aitortzeagatik, edo hasieratik proiektua suttsuki defendatu duelako.

Ez du beti horrela izan beharrik, beste leku batzuetan errenta kobratzen ari dira eta pozik daude, nahiz eta hasieran 1.000 euro zirenak errealitatean 700 izan. Enpresek asko jokatzaren dute faktore honekin: egun lurra herentzian jaso duten askok ez dakitela lur horiek non dauden ere. Jende horri laborariak 100-200 euro ordaintzen bazizkien eta orain 1.000 eskaintzen badizkiote, zuzenean onartu egiten dute eta gero kobratzen dutena 500 euro badira, merezi die, ez dute lur horrekin inolako loturarik, ez dute inoiz lur hori landu...

Dokumentalean agertzen da ate birakarien gaia. Demokraziari maskara erortzen zaio gai hauetan...

Erabat. Hori da hipokritena. Sarritan enpresak hartzen dira jopuntuan eta ongi dago, haiek ere izan behar dute kode etikoko bat, baina tira, enpresak enpresa dira beti. Aldiz, gobernua izan behar du zentzugabekeria hauek ez gertatzea zaindu behar duena eta inpunitate hori izatea galarazi behar duena, eta ez da horrela. Min ematen didatenak administrazio

publikoak, politikariak eta funtzionarioak dira, izan ere, guri zor zaizkigu, guk ordainduta daude lanpostu horietan. Demokrazia bat hain ustelduta dagoenean, deitu diezaiotela demokrazia, baina niretzat jada ez da hala, ez direlako pertsonak artatzen.

Proiektu hauek aurrera eraman ahal izateko "interes orokorreko" izendatzen dira...

%100 interes pribatua dute. Etxean eguzki-plakak jarri nahi badituzu makina bat traba jarriko dizkizute; berdin etxeari leiho bat egin nahi badiozu edo lau teila aldatu... eta enpresa horiek paisaia eraldatuko dute, bertako guztien bizitza eraldatuko dute eta bidea libre dute edozer egiteko. Badira mugikorraren neurriko droneak, eta zonalde batzuetan ezin dira erabili hegaztiei kalterik ez egiteko; oso ongi, baina hor bertan 50 aerosorgailu jarri ditzakete, 100 metroko besoekin, txori-birrintzaileak izanik!

Zer eragiten du dokumentalak ikusten duten pertsonengan?

Badira bi publiko mota. Batetik daude denbora daramatenak borrokan, informatu egin direnak, badakitenak zer eka- rri dezaketen proiektu horiek... baina hala ere, inpaktua eragiten die dokumentalak, tamainaz konturatzen direlako. Fotovoltaikoaren borrokan ari denari inpaktua sorrarazten dio eolikoak eta alderantziz, eolikoaren borrokan ari denak uste du fotovoltaikoa onberagoa dela, baina ikusten duenean ispiluzko itsaso zabal hori, pentsatzen du: "Ez dakit zer den okerrago!". Pertsona horiengan dokumentalak borrokan jarraitzeko gogoia ere sortzen du, ikusten dutelako ez daudela bakarrik, jende asko ari dela borroka berean.

"Noski makroproiektu hauek denoi eragiten digutela, bolumen handiko azpiegiturak direlako, hamarkada luzez ingurunea baldintzatuko dutenak"



Beste publiko motak, hau da, borrokan ari ez direnek, dokumentala ikustean sentitzen duten inpaktua are itzelagoa da. Jende asko atera da zinematik negarrez. Batek baino gehiagok esan digu bizkarreko mina egin zaiola tentsioagatik... gehiengoak ez du proiektuen alde hau ezagutzen, dena zoragarria delakoan dago, eta ikusten duenean sarraskiaren neurria eta hirian zein landan bizi garen guztioi eragingo digula, oso erasanda ateratzen dira. Askok inpotentziaz ateratzen dira, eta beste batzuk laguntza emateko prestutasuna agertzen dute, esaterako, dokumentala ikusi ostean biologo eta ingeniariak etorri izan zaizkigu kontaktu eske, haien denbora eta jakintza platafor- men zerbitzura jartzeko prest.

Dokumentalean agertzen diren lau proiektu geroztik gelditu egin dira.

Bai, eta dokumentalean agertu ez diren beste proiektu asko ere bai. Lehenik, jendea borrokatzen ari delako. Bigarrenik, olatu handi horretan, eurek ere badakite hamabost proiektu aurkeztu arren egingo direnak hiru direla. Proiektuak gelditu egingo dira, borrokatzen bada. Baina

gelditu dezakegu proiektu bat bailara batean, eta hamabost egunean beste bi proiektu berri gainean izan. Lan eta neke handia dakar borroka eta horregatik, zenbat eta jende gehiago, hobeto.

Euskal Herrian askotan izan zara dokumentala ematen. Nola ikusten duzu?

Daraman denbora laburrerako borroka gehien egiten ari den lurraldea da: plataforma gehien dagoena -ia herri bakoitzean bada talde bat-, borroka handiagoa eta antolatuagoa dagoena... Dokumentala gehien proiektatzen ari den lurraldeetako bat da. Mugimendua dago eta jendea egiten ari den hotsarekin proiektu asko eta asko gelditu egingo direla uste dut. Zeren eta ikusi dugun gauza bat da, zarata egiten den lekuan gelditu egingo dela, ez administrazioari eta ez enpresei ez zaielako zarata interesatzen, mezua erori egingo zaielako; nahiago dute beste leku batera joan. Borroka gogorra izango da, baina borrokan esperientzia duen lurraldea da. ●

HURRENGO EMANALDIAK EUSKAL HERRIAN

OTSAILAK 25: Donostian, 19:15ean Trueba zinemari.

OTSAILAK 26: Igorren, 18:00etan Lasarte aretoan.

OTSAILAK 27: Balmasedan, 18:30ean Klaret antzokian.

OTSAILAK 28: Karrantzan, 19:30ean kultur etxean.

OTSAILAK 28: Gaubean, 19:00etan (aurkezpenik gabe).

MARTXOAK 1: Urizaharran, 12:00etan.

MARTXOAK 13: Zarautzen, 19:00etan Modelo zinemari.

MARTXOAK 14: Arian 18:30ean (aurkezpenik gabe).

MARTXOAK 14: Alegian.

MARTXOAK 15: Aranon.



Sañu Bizirik taldeak Azpeitian antolatu zuen dokumentalaren emanaldia; argazkian, taldeko kide bat Vaquero aurkezten. Parada baliatu genuen Azpeitian elkarrizketa egiteko

KONTRAINFORMAZIOAK HAIZEA ALDE DU

Palestinan genozidioa, Europan gerra eta potentzia nuklearren artean tentsioa. Ez daukagu berri on askorik emateko, baina bada bat, hondamendi orokorretik eratorria, aipatzea merezi duena: aldeko baldintzak sortzen ari dira kontrainformaziorako, informazio independenterako, propagandaren salaketarako, edo deitu nahi den bezala.

 RAFAEL POCH DE FELIU / CTXT - CC-BY-NC

Herritarrek beren irizpidea osatzeko iturri nagusia da informazio aske eta independentea. Oinarrizko eskubidea da hori. Ezinbestekoa da informazioaren ustelkeriaren aurka jardutea eta haren kontrako legeak egitea. Handiki multzo batek komunikabide gehienak kontrolatzea eta sare sozialek, monopolioaren moduko baldintzetan, beren ideologia herritar guztiei helaraztea zaharkitua dago, iraganean emakumeei edo ugazaba ez zirenei boto eskubidea ukatzea bezalaxe, edo gizartearen goi klaseek zergak ez ordaintzeko pribilegioa izatearen pare. Ageriko irregulartasun horri muga jartzea gizartearen aldatu nahi duen edozein proiekturen programaren parte izan beharko lirarteke: horretarako legeak eginda, interes pribatuen eta informazio independentea izateko eskubidearen arteko bateraezintasunak araututa, eta herritarren kontrolpean dauden komunikabideak eta sare sozialak garatuta.

Hedabide eta sare sozial publiko eta independenteak sortzea eta sustatzea ezinbestekoa da egungo egoeran

Testuinguru horretan, gerra propagandan gertatu den ageriko zirkuitulaburra kontuan izan behar da, bai Ukrainako gerran, baita Palestinako sarraskiari dagokionez ere.

Amerikako Estatu Batuetako presidente berriak, NATOren eta Errusiaren artean Ukrainan dagoen gerraren aginte-kateko burua denak, adierazi du Errusiak bere erasoak justifikatzeko emandako argudioak "ulertzen" dituela. Hau da,

aitortu du gatazka horretan erantzukizunak partekatu behar direla. Trumpek esan du Biden izan zela gerra horren erantzulea, eta bera agintean izan balitz hori ez zela inoiz gertatuko. Errusiari nolabaiteko aitortza egin dio, NATOk gehiago ez zabaltzearen aurka Errusiak duen jarrera ulertzen duela esanda. Trumpek behin eta berriz esan du ez duela gerra gehiago hasi nahi. Mendebaldeko zigorrak Moskuren aurka porrot egin dute eta boomerang efektua izan baitute: Alemaniaren atzeraldia. Errusiak, oraingoz eta ez esfortzu handirik gabe, gerra ari da irabazten; eta jakina da irabazleak haizea alde duela bere argudioak ezartzeko. Inguruabar horiek guztiek Mendebaldeko propagandaren ardatzak hautsi dituzte Mendebaldean bertan, flotazio politiko eta mediatikoaren ildoan torpedo bat jaurtita.


Trumpen anbiguotasunek NATOren egonkortasunean duten eraginak gogora ekartzen dizkigu perestroikak, Mikhail Gorbaxoven erreformak, erein zituen

nahasmena eta desorientazioa Varsoviako Itunean, Gerra Hotzeko bloke militar sobietarrean. Errusia hegoaldeko *muzhik* apal baten seme handi haren bulkada etiko humanistaren, eta AEBetako egungo presidentearen narzisisimo aldrebes eta nekaezinaren arteko (New Yorkeko higiezinaren negozio mafiosoetan aberastutako milioidun erreakzionario bat) desberdintasunak desberdintasun, *beharrezko obediencia*ren *printzipioaren krisia da*. Horrek *desitxuratu egiten du basailuen nagusiaganako mendekotasun-logika, larri-duraz eta nahasmenduz betetzen ditu, eta nahasmendua sortzen du.*

Zer gertatuko zaio NATOri bere nagusi handiak bizkarra ematen badio? Nola geratuko da errusiarren inbasio zitalaren bertsio kanonikoa, inbasioa "probokaziorik gabeko" gaiztakeria izan zela dioena, nazioarteko zuzenbidea urratzen duela eta inperio bat berreraikitze irrikan dagoen lider gaizto batek sustatu duela? Gatazka testuinguru serio batean kokatzeko egin den ahalegin oro, hau da, eliteen interes geopolitiko kontrajarrien arabera, "propaganda errusiar" gisa baztertua izan da urteetan. Nola egin atzera orain, gerraren sorreran eragile bakoitzak izandako erantzukizunak aitortu gabe eta lotsagorritu gabe?

Ukraina galtzeak porrot estrategiko handia dakar AEBentzat eta Europako potentzia zentralentzat. Arazoa larriegia da onartua izateko. Negoziazio errealista batek Mendebaldearen porrota onartzea eta Europako segurtasun integratuaren ideia itzultzea dakartza. Hau da, 1990eko azaroan Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundearen Parisko konferentzian hitzartu zena. Errusiak horixe eskatu izan du azken 30 urteetan. Amore ematea pentsaezina dela ohar-tarazten diote neokontserbadorismo amerikarraren estrategiek presidente berriari, eta, beraz, nahitaezkoa dela gerran sakontzea.

Biden presidente ohiak oso argi adierazi zuen ekainean *Time* aldizkarian egindako elkarrizketan: "Ukraina erortzen uzten badugu, Errusiako mugaren ondoko nazio horiek, Balkanetatik Poloniaraino eta Bielorrusiaraino, euren trikimainak egiten hasi-





Otsailaren 7an, Trump presidenteak agindu exekutiboan sinatu zuen Etxe Zuriko Fede Bulegoa sortzeko, erakunde erlijiosoak eta gurtza egoitzak sustatzeko asmoz.

ko dira". Eslovakia, Hungaria, Bulgaria eta Georgiarekin ari da hori gertatzen. Europak autonomia bereganatzeko eta Txinako motorra duen esparru euroasiar batean integratzeko aukera dago, eta hori da, hain zuzen, lehian dagoena. Porrot horri atea irekitzea AEBen "segurtasun nazionalaren" hil ala biziko interesen aurkako atentatua da, eta horrek arriskuak dakartzkio saiatzen denari. Ohartarazpen hori irakurri behar da bai AEBetako historiaren testuinguru orokorrean (presidente eta buruzagi politiko *okerren* eliminazioa barne), bai 2024ko presidentetzarako kanpainaren giro zehatzean, Trumpek bi hilketa saikera jasan baitzituen.

Jakina, muturreko baliabide horiek erabili aurretik, *establishment* nazionalaren presio izugarriak zuhurtzia ezar-

tzen dio edozein presidente *okerri*. Horregatik guztiagatik, oso sinesgaitza da presidente berriak adierazi duen asmoa betetzea: gerra berriak saihestu nahi dituela adierazi du. Asmo hori erabat kontraesankorra da tarifak, merkataritza-oztopoak eta guztien aurkako zigorrak iragartzearekin, izan arerio ala aliatu; beraz, erreformismo zentzugabe horretatik haratago, litekeena da AEBak barne-desoreka handi baten aurrean egotea. Nolanahi ere, Trumpek adierazi duen "Putinenganako hurbilketa" noraino iritsiko den argitzeko zain dago Europar Batasuna, kezkatuta eta nahasita. Zain bai, baina berrarmatzen ari da, eta ahalik eta gehien saiatzen ari da zailtzen (ikus zer gertatzen ari den Baltikoan) edozein negoziazio-zantzu, sarraskia gelditzeko asmoa duena bederen.

Palestina dena are zakarragoa eta dramatikagoa da. Ukrainaren inbasioaren aurrean Mendebaldeak adierazitako haserre, ezarritako zigorrak eta gerra aktiboki sustatzeko aurrekaririk ez duten laguntzak, batetik, eta bestetik, Israelen duen lankidetzaren bistan geratu dira Mendebaldearen biluztasun morala eta "giza eskubideei" buruzko bere ikuspegiaren falazia. "Terrorismotzat" jo zuten erresistentzia palestinarrek 2023ko urriaren 7an egindako eraso. Israelgo segurtasunaren arduradunen definizioaren arabera, "munduko aire zabaleko kontzentrazio-esparru handienetik" palestinarrek duten ihes egiteko nahia ez zuten kontuan hartu. Alde batera utzi zuten erasoaldiaren izaera desesperatu eta suizida, mugimendu anticolonialen historian klasiko bat dena, eta eraso-



ren ankerkeria areagotu egin zuten, haurtxoen buru moztuei eta erraiak aterarazitako emakumei buruzko kontakizun lazgarriak faltsutuz. Bidenabar, "Anibal doktrina" deiturikoaren ageriko

aplikazioa ezkutatu egin zuten. Lege horrek Israelgo armadari ahalbidetzen dio bere herritarrak hiltzea, preso har ez dituzaten. Horrek sarraskiaren zenbakiak handitu egin zituen.

Israelgo kartzeletan 10.000 palestinar egonik ere, 250 israelarren patuak besterik ez zuten inporta. Hamarkada luzeetako indarkeria koloniala, lurraldearen legez kanpoko lapurreta eta indigenen kanporatzea desagertu egin ziren kontakizunetik. Hortik aurrera, Israelek bere burua defendatzeko eskubidea" aldarrikatu zuen eta haren izenean dozenaka mila zibil errugabe sarraskitu zituzten. Hildako palestinarren kopurua 200.000 izan liteke, *The Lancet* aldizkarian aditu batzuek otsailean aztertu duten zuzeneko eta zeharkako heriotzen proiektzioaren arabera. Horien artean haurrak eta emakumeak dira gehienago. Hiriak, ospitaleak, gurtzarako lekuak, oinarrizko azpiegiturak suntsitu dituzte, eta nahita hil dituzte Nazio Batuen agentzietako funtzionario eta kazetari gehiago, munduan urte askoan hil dituzten guztiak batuta baino. Hori guztia gertatu da sarraskiaren buru direnek inoiz erakutsi gabeko elokuentzia eta gardentasunez, beren asmo suntsitzaila argi eta garbi azpimarratu dute kamera eta mikrofono globalen aurrean. Horretarako ideologia supremazista erabili dute, Bibliaren hasierako orrietako eszena batzuekin apainduta.

"Nazioarteko justiziaren" erakunde gorenak, Mendebaldeko potentzien nagusitasunaren aparretan sortu zen auzitegiak, Israelen krimenak ia inoiz zalantzan jarri ez dituenak, "Israelek bere burua defendatzeko duen eskubidea" ageriko "genozidiotzat" jo zuenean, fronte horretan ere guztia hondoratu zen. Ezerk ezin izan du konpondu: ez Mendebaldeko komunikabide handien

manipulazio konplizeak, haien profesionalena barne –ez zuten inolako empatiarik adierazi Israelgo armadak aurrez pentsatutako eta selektiboki erail zituen lankideekiko–; ez Israelek egindako "antisemitismo" salaketek NBERen, bere idazkari nagusiaren eta protesta egin duen orenen aurka –AEBetako ikasle judu gazteak barne, absurduaren gailurra izan dena–; ezta Alemanian, Frantzian eta Ingalaterran Palestinarekiko elkartasuna kriminalizatzeak ere. Agerian geratu da gizakien arteko berdintasuna ukatzen duela Mendebaldeak, baita horren erro kolonial eta arrazista ere.

Nazioarteko Justizia Gorteak epaia eman ondoren, giza eskubideen aldeko Mendebaldeko erakunde nagusiek, Human Rights Watch, Mugarik Gabeko Medikak eta Amnistia Internazionala, bat egin dute ondokoan: Israelek Palestinan duen politika diseinatuta dago herri oso bat ezabatzeko, palestinarrei gizatasuna bera ere ukatzen die. Hori guztia txosten mediatikotik baztertu izanak agerian utzi du Mendebaldeak eta haren komunikabideek mundu osoan izan duten porrot morala.

Kapitalismo globala eta inperialismo oligarkikoa gizateria bere buruaz beste egitera eramaten ari dira, klima-kaosaren eta gerraren bidez. Arriskuaren ebidentziaren aurrean, jardun mediatikoa jendea ez dezan erreaktionatu saiatzen ari da. Gerra propaganda horrek gaur egun hainbeste kontraesani aurre egin beharrik aukera ikaragarriak ematen dizkie hori zalantzan jarri nahi dutenei. Garai nahasi hauetan gerra propagandak bizi dituen zurrunbiloek, aprobeztatu beharreko aukerak eskaintzen dituzte. Egoera honetan, hedabide eta sare sozial publiko eta independenteak sortzea eta sustatzea ezinbestekoa da. ●

ARTXIBOA



Pilatuz joan diren ARGIAk eta hautsak

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Azken urteetan trasteleku modura ibili dudan gela txukuntzen hasi naiz eta, fundamentuzko txukunketa guztietan bezala, une batetik bestera denboraren nozioa galdu dut ume eta nerabezaroko argazkiei begira, eskolako proiektuetatik begiak ezin kenduta... Gela txukunketa hasi aurretik baino desastreago ikusten den une hori; eta ni, lurrean eserita, paperez, dokumentuz, argazkiz inguratuta eta oroitzapenetan murgilduta. Badakizu zertaz ari naizen, baietz, irakurle?

Fundamentuzko txukunketa guztietan bezala, altxor ederrak topatu dituzte ARGIAk, artxiboa garbitzen hasita. Antza inprimategian (ARGIAren egoitzaren parean dago, Lasarte-Orian) dago kokatuta hedabidearen urtetako artxiboa, astekariz, *Larrun-ez*, urtekariz eta hamaika gehigarri, kartel eta askotariko dokumentuz betea. Antzan birmolda-


keta bat egin behar dutela eta mugitu dute, behin-behinekoz, artxibategia. Eta, noski, behin paper artean sartuta, beti bada ahots txiki baina sendo bat esaten duena: "Garbiketa egiteko aprobetxatuko dugu". "Puf...", erantzuten duten horietakoa naiz, daitort, badakidan arren beharrezkoa dela eta emaitzak mereziko duela.

ZER TOPATU DUTEN ARGIA-REN PAPER ZAHARRETAN?

Hasi etxeko gazteenek ezagutu ere egiten ez dituzten disketeen aurreko *floppy*-tik eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren akzio fisikoetaraino. Garai bateko prentsa-akreditazioak, erreportaje bakarrarentzat tokia zuten disketeak... Eta belaunaldi batetik besterako aldea, horretan ere, handia. Mundu analogikoan jaiok gauzak botatzeari jartzen dioten erresistentzia vs mundu digi-

taleko generazioek, hodeiak eta disko gogorrek ematen dien ziurtasunarekin, euskarri fisikoak botatzearen erraztasuna (errazkeria?). Total, han ibili direla, batzuk hondakin-ontzira bota eta atzetik besteak berreskuratzen "hau nola botako dugu ba?", esaten duten bitartean. Badira altxor txikiak etxera eraman dituztenak, baita "basuretara botatzea erabaki baduzue, nik bota aurretik nahiago etxera eraman" esan duenik ere.

Baina bai, bazegoen zer botea, bazegoen hautsa kendu beharra, eta orain, behin-behinekoz ARGIAk izango duten artxibategia laster itzuliko da Antza inprimategira, lehen baino txukunago. Eta lantaldeari balio izan dio aitzakiak, garbiketan zehar topatutako kartel eta aldizkariaren bueltan taldeko gazteenei transmisio-lana egiteko; ARGIA nondik eta noiztik datorren gogoratze. ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Aliatuen errekorrak

Pforzheim (Alemania), 1945eko otsailaren 23a. Iluntzeko zortziak jotzear zirela, hegazkin aliatuak hiria bonbardatzen hasi ziren bomba su-eragileekin. Erasoak sarraski izugarria eragin zuen denbora gutxian. Baina Pforzheimen gertatutakoa itzalean geratu zen, egun batzuk lehenago, hilaren 13tik 15era, aliatuek Dresden bonbardatu zutelako.

Kurt Vonnegut idazle estatubatuarra (1922-2006) Dresdeneko suntsipenaren lekuko izan zen; Bigarren Mundu Gerran armadarentzat begiztatzaile lanetan aritua, une horretan alemaniarrek preso zeukaten eraso egindako hirian. Berak azaldu zuen bomba su-eragileek egiten dutena: sotoetan eta babeslekuetan topatu zituzten milaka gorpuak ez zeuden erreta. Soto haiek “bihotzekoak jota hildako jendez betetako tranbiak ziruditen”. Bomba su-eragileek oxigenoa kontsumitzen dute eta Dresdeneko biktima gehienak itota hil ziren.

Vonnegutek datu lazgarri batzuk ere bota zituen. “Europar inoiz azkarren egindako sarraskia izan zen, persona kopuru handiena denbora gutxienean eragin zituena: 135.000 biktima ordu batzuetan. Sarraski handiagoak izan dira, baina mantsoagoak”. Vonneguten datuak ez dira errealak. Datu zehatzik ezean, gaur egun bonbardaketan 25.000 pertsona inguru hil zirela kalkulatu da, eta eraso hiru egunez luzatu zen.



Alemaniako Dresden hiria duela 80 urte, 1945eko otsailaren 13tik 15era bonbardatu ondoren.

Gainera, hamar egun geroago, Pforzheimen gertatutakoak Vonnegutek aipatutako marka hori erraz gainditu zuen. 20 minutu eskasetan 17.600 pertsona hil zituen erasoak. Dresdeneko erasoan hiriko biztanleen %5 inguru hil ziren eta Pforzheimen, aldiz, %25.

Aurrez, 1943ko uztailean Hanburgo airez erasotu zutenean ere Dresdeneko marka hautsi zen –30.000 hildako gau bakarrean–, eta 1945eko martxoaren

12ko Świnoujście hiriko (Polonia) bonbardaketan ziurrenik ere bai, nahiz eta datu zehatzik ez izan, ordu erdi inguruan milaka pertsona hil zituztelako. Eta Europara mugatzen ez bagara, Hiroshima eta Nagasakin bota zituzten bomba atomikoek azkar egindako sarraski handien marka guztiak txikitu zituzten.

Aipatutako errekor hauek guztiak aliatuek hautsi zituzten, irabazle zintzoen bandoak. ●



ANTONIO RODRIGUEZ-HIDALGO / IAM

Kanibalismoa bizirauteko

Poloniako Maszycka kobazuloan duela 18.000 urteko arrastoak topatu zituzten XIX. mendearen amaieran. Baina berriki giza hezurak teknologia berriak erabiliz aztertu eta kanibalismo zantzu garbiak aurkitu dituzte. Ez da ikerlan bat ondorio horretara iristen den lehen aldia, baina aurrez nagusitu izan den helburu erritualen hipotesia baztertu dute *Scien-*

tific Report aldizkarian argitaratutako artikuluan. Batetik, hezurretako markek agerian uzten dute giza gorputzaren zati nutritiboak kontu handiz bereizi zituztela. Bestetik, testuinguruak, populazioaren igoerak, komunitateen arteko gatazkek eta baliabide eskasiak pentsarazten dute bizirauteko jo zutela kanibalismora. ●

KOMUNITATEAZ (I)



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

Konturatu orduko, 119 arkume jaino dira etxean, eta hamahiru ardi baino ez zaizkigu gelditzen erditzeko. Aurrerakoak diren urruyak jada izendatuta dauzkagu; horrek, inplizituki, esan nahi du hiltegiara eramango ditugunak zeintzuk diren badakigula. Bereizte ariketa horretan bihotzak bere estutasunak pasatzen ditu, eta horiekiko distantzia hartzen saiatu arren, gehienguan ez du lortzen, eta geratzen zaion kontsolamendu bakarra herioaren ifrentzua da; hau da, jakitea komunitatea elikatzea joango direla.

Bizitzaren hurrengo domino fitxa gatzandegian dago. Arkumerik gabe geratuko diren ardiak esnea jasoko dugu, gatzatzeko. Berriz ere, jendearen elikadura helburu. Atera kontuak zenbat bizitza eta zenbat lan eta esku dauden gazta jaterako, ai ama!

Gatzandegia garbitzeari ekin diogu; gaur elaborazio gelan bukatu dugu. Gaur Antoine eta Antoinerekin izan da, abenduan Linarekin izan zen bezala. Gaurkoan, garbiketara hutsa; abenduan, margoketa. Gaur, Picardie eskualdeaz hizketan; abenduan, Berlinez. Gaur eta orduan, etxekook ehundu dugu WWOOF [Etxalde Organikoetan Munduko Aukerak] sareak diseinatu duen komunitatea.

Zoruko urak biltzen ari nintzela komunitate kontzeptua nerabilen burutik ezin kendu. Arratsaldean, Euskaltzaindiaren hiztegiari jo dut: *Interes edo helburu bera duten pertsonen osatutako taldea*. Bai, baina ez. Segituan etorri zaizkit artalde eta ardi-pila, ez baitira gauza bera. Komunitateaz dudak kontzeptuak gain hartu dio horri definizio ofizialari, lapikoari irakiten dagoen esneak gainekaz egiten dion bezala.

Aseko nindukeen definizioaren bila aritu naiz, eta ekologiatik etorri zait buruan nerabilen horren antzerakoa. Korronte holistikotik, hain zuzen ere. Frederic Clementsek XX. mendearen hasieran osatu zuen definizioaren arabera, *komunitatea*



Honen moduko argazkiak eta wwoof sarearen informazioa osoa, haien webgunean aurkitu dezakegu: wwoof.net

bertan daudenen arteko interakzioak osatzen du, denak interdependentek dira, eta espezie guztiek dute komunitatearen osaketan funtsezko funtzio bat. Bere iritziak, komunitatearen sorrera ez da ausazkoa eta koeboluzioan oinarritzen da (Wikipediatik hartua). Mende horren bukaeran, Lynn Margulisek sortu zuen *holobionte* kontzeptura egin dut jauzi.

Halaxe da, aurretik izan diren beste askorekin bezala, aipatu ditudan hiru pertsona horiekin batera, gure xumean, komunitatea osatu dugu, etxekook eta haiek. Euskaltzaindiaren definizioari erreparatuta, bai, interes komunak ditugu: baserria, landa-eremua, ardiak, gaztak... Dena den...

Dena den, gure artekoa ez da hor gelditzen, inondik inora, korronte holistikoaren baitan ere sar dezakegu gure hau. Adibidez, gure artean dagoen interdependentzia: haiek ikasi nahi etorkizunean lanbide honetan aritzeko, eta guk bizimodu hau posible dela erakutsi nahi. Komunitate txiki honetan, gure funtzioa da ahalik eta hobekien eta modu osatuenean gure lana erakustea, eta haiena, ikastea, eginarenekin. Jakina, ez gara ausaz el-

kartu; gure etxera heldu baino lehen, hitz egin dugu, eta lehen elkarrizketa horien ondorioz erabaki genuen denboraldi batez elkarrekin bizitzea. Ederra da ikustea asteak pasa ahala denok aldatu egin garelara, ikasi dugula elkarrekin lan egiten, bizitzen, azken finean –hala ere, ez dezala inork pentsa zailtasunik ez denik bioaniztasun eder honetan–.

Arraro begiratzen digute leku askotan, etxean wwooferrak hartzen ditugulako, *ezezagunak*. Behin baino gehiagotan galdetzen digute ea nola ausartzen garen, are gehiago seme-alabak izanik.

Agian oker nago, baina elkarrizketa horien isiluneetan beldurra entzuten dut askotan. Beharbada, beldurrak jendarte honetan ezezagunaren aurrean lehen genuen jakin-mina itzali ote digu?

Ez al zaizue iruditzen egun *ezezagun* etiketa gurekin igogailuan edo autobusean doan horri ere jartzea gure jendar-tearen egoeraren sintoma dela? Nolatan urratu genuen –ziguten?– komunitatearen ehuna?

Josten berrikasi beharko dugu, komunitatea erabat zirpildu baino lehen... Edo? ●

A ZE FAUNA!

AMORROTXA,
ODOL URDINEKO
AMESLARIA?

NAGORE ZALDIA MENDIZABAL
ARANZADI ELKARTEKO KIDEA

Trebea, burutsua eta iheskorra; olagarro arruntak, izenak hala adierazten ez badu ere, aparteko trebetasunak ditu. Itsas molusku zefalopodo haragijale honek txundituta gauzka, bere ezaugarri eta ahalmen bixiekin. Ornogabe guztien artean adimentsuena da, besteak beste.

Munduko ozeanoetako ur tropikal eta epeletan aurkitzen den heinean, gure kostaldean ere itsasertzen eta 100 metroko sakoneraren artean topatu daiteke, hondo harritsueta. Haien bila dabilzan arrantzaleek ederki asko dakite marearteko zabalgunearen eremu malkartsua habitat ezin hobea dela amorrotxarentzat (hala ezagutzen da hainbat herritan). Harkaitz arteko pitzadura eta zuloak maite ditu, edozein zirrikitu estutik iragateko gaitasuna baitu, etsaiengandik babesteko nahiz bertatik harrapakinei erasotzeko.

Ezaugarri morfologikoei erreparatuz gero, erraz atzeman ditzakegu olagarroaren zaku itxurako gorputz biguna, bere ahoa inguratzen duten zortzi garroak eta hauetako bakoitzaren azpian bereiz daitezkeen bi bentosa lerroak; azken hauek harrapakinei hobeto heltzeko edo heldulekuetara ondo itsasteko beharrezkoak dira. Bestelako ezaugarri harrigarrien artean dago bere nerbio-sistema konplexua ere: 500 milioi neurona inguru ditu gorputz osoan banatuta, animalia azkarra dela iradokiz; zenbait azterketek erakusten dutenez, oso argiak izateaz gain, memoriarako nahiz ikasteko gaitasun handia ere badute. Bestalde, baditu hiru bihotz, duen odola gorputzean barna garraiatzeko. Horietako bik, oxigenorik gabeko odola brankietara bideratzen

OLAGARRO ARRUNTA
Octopus vulgaris

TALDEA: Moluskuak / Zefalopodoa.

NEURRIA: 180 cm-raino iritsi daitezke.

NON BIZI DA? Ur epeletan. Euskal Herrian itsasertzen eta 100 metroko sakoneraren artean, hondo harritsueta.

ZER JATEN DU? Moko indartsu eta erradula deituriko mingain horzdunari esker, mota guztietako krustazeoak, moluskuak eta arrinak txikitzen ditu.

BABES MAILA: Aisialdiko laketa-arrantzan egunean 750 gramotik gorako olagarro bakarria har daiteke.

dute; bertan oxigenatu ostean, odola hiru garren bihotzera iristen da, ondoren gorputz osora zabaltzeko.

Olagarroen odola urdina da, duen kobrearen ondorioz; gizakiok gure hemoglobina gorrian dugun burdina baino eraginkorragoa da, itsas hondoko ur hotzetan, odolean oxigenoa garraiatzeko. Eta hona hemen olagarroen beste organo esanguratsua: tinta-poltsa. Horri esker olagarroak tinta isurtzen du bere burua harrariengandik eta mehatxuetatik babesteko: ke laino baten moduan kanporatu eta sortutako nahastea ihes egiteko ba-

liatzen du. Baina ihesbide izatetik harago, tinta jaurtitzeko arma ere bada. Izan ere, tintaren osagaietako batek, tirosinasak, propietate toxikoak ditu eta, beraz, harrariaren aurkako babes ere izan daiteke.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi olagarroaren beste bertute bat: harrapakari nahiz harrapakinek antzeman ez dezaten, mimetizatzeko duen gaitasuna. Pigmentu-zelulen (kromatoforoak) koordinazio kontrolatuari esker eta larruazalean espezializatutako muskuluen sare bat erabilita, bere inguruko kolore, patroia eta ehundurekin bat etor daiteke, azkar batean. Gaitasun hori komunikazio mekanismoa ere bada. Eta horrek guztiak huts egingo balu, besoren bat "galtzeko" ahalmena du, harrapakariengandik ihes egiteko; aste gutxiren buruan birsortuko zaio beso berria, aurrekoaren berdinean.

Eremu itxi eta kontrolatuetan ikusi denez, lokartutako amorrotxetan ere tinta hodeien isuriak, gorputzaren kolore aldaketa bizkorra nahiz babesteko antzeko erantzunak ikusi dira, ornodunen antzeko lo aktiboko eta ez-aktiboko egoerak dituztela iradokita. Mehatxatuak sentitzen diren basa-egoeran auden aleen portaera bera izan dezakete amesgaiztotan, ur-tangaren bakardadean.

Odol urdina, hiru bihotz, kamuflajea eta garroak galdu eta birsortzeko ahalmena. Memoria garatu eta beharbada amestu ere egiten duen izaki azkar eta harrigarri hau sarritan plateran baino ez dugu irudikatzen. Aukera izatekotan, gozatu. Baina ez ahaztu, bertako olagarroak ez direla bertako jatetxeek duten olagarro-eskaria asetzeko nahiko. Ez behintzat Kantauri itsasoan. ●



ALBERT KOK NEDERLANDERAZKO WIKIPEDIAN

INTSEKTUEN NEGUPASA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Hotza gogor ari du. Ez denean, baina aurtengo neguan lurralde batzuk ederki jotzen ari du. Eta intsektuek nola irauten dute, udaberriarekin indarrean berragertze-ko? Kaleko galdera izan dut bart. Hortik intsektuen adimendu eta buruargitasu-nera kokka ttikia dago. Berritu ditugu etxebarruetan bertan gozo negua gurekin igarotzen ari diren zimitz kirastun gorbeltzak (*Halyomorpha halys*) edo armarri-zimitz jaspeztatuak, Bizi Baratzearen txoko honetan auzoko dudan Iñaki Mezquita Aranburuk izendatzen duen eran. Negua igarotzeko horien taktika erraza da: toki beroa topatu, inguruko beroenak sukaldeak eta etxebarruak dira; udazkenean sartu, etxepeko egin eta ezkutatzan dira eguna luzatzen hasi arte. Etxeteilape ezta.

Lurreko animalien artean intsektuak dira ugarienak, %90. Pertsonako 1.400 milioi inguru intsektu dagozkigu. Eder-tasun hori biziraupenerako estrategia ugari garatu izanari zor diote. Tartean, hilabeterik hotzenetan arrakastaz irautekoak: aterpe egokiak, hotzak eta izotzak jasatea edo migrazio planak. Izan ere, intsektuak ez dira gure modukoak, ez dira bere beroa sortzeko gai. Eta diapausa asmatu dute: baldintza kaxkarrak diren urte sasoi jakinetan, espezie bakoitzak erabakitzen du bizitza erritmoa eta garapena apaltzeko garaia duela; hibernazioa edo negukatzea.

Espezie bakoitzak, milaka urtean, bere plangintza ondu du. Batzuek arrautzak utziko dituzte, sasoi berri gozora ernatuko direnak. Sagarrondoari (*Malus domestica*), patatari (*Solanum tuberosum*) eta babari (*Vicia faba*) erasoko dieten zorriek, adibidez, ziklo ikusgarria dute: udan emeek, arren ernalketa gogaikarriaren beharrik gabe, partenogenesiaren medioz bere klonak edo kopia berdindinak



CREATIVE COMMONS CC0

izango diren emeak sortzen dituzte. Udazkenarekin, egun argia apaldu eta hotza gainean; horrek zorri eme horien barruan erantzun bat eragiten du: belaunaldi sexual bat sortzea, arrak eta emeak. Hortik, ezagunagoa egiten zaigun estalketa dator: emeak ernalduko dira eta arrautzak egingo dituzte, negua igarotzeko pronto egongo direnak. Gero udaberriaren ireki eta eme partenogenetikoak sortuko dira, *arrakurrutitarrak*.

Beste batzuk zuzenean txoko gozo bat topatuko dute bertan ezkutatzeko. Ur eta jaki erreserbak osatzen dituzte eta kalkulua ondo egin badute, udaberriaren bizirik iritsiko dira. Horietakoak dira etxebarruetan sartzen zaizkigun zimitz kirastun gorbeltzak.

Inurriak inurritegian eta erleak eultzean, pilatu egiten dira elkarren zirrrian epeletasunari eutsiz.

Liztor handiek –europarrak edo ku-

ruminoak edo liztortzarrak eta asiarrak– ez dute erleen bidea landu. Udazkenean erreginak erregina gazteak eta liztormando arrak sortzen ditu. Urteko liztor guztiak hil egingo dira. Erregina gazteak ernatu dira, eta, ondo baino hobeto elikatuta, babes bila alde egingo dute; edozein txoko babestu ona dute: lurlean, hormetan, txuloetan... Udaberriarekin, otsailetik atzera noiznahi, biziberritu eta habia berriak eraikiko dituzte, sekula ez aurreko urtekoan.

Pinu beldarrekin edo prozesionarioekin ere bere habi gozoa sortzen dute familiari epel eusteko. Orain eguna luzatzen hasi orduko, toki epeletan otsailean, gainontzekoetan baita apirilean ere, lurperara jaitsiko dira prozesioan, uda hasieran hurrengo zikloari ekingo dioten helduak sortu arte.

Eta liztor eta prozesionario arrisku-tsuak mugitzen dituen egun luzexeko eta epelxeagoko otsaila hemen da. ●

XÜXENKA

HURBILEKO LABORARI TXIKIEK KUDEATUTAKO SALTOKI KOLEKTIBOA MAULEN



GARAZI ZABALETA

Mauleko Euskalduna ostatuak urteak daramatza Zuberoako etxe ekoizle txikien produktuekin lanean, eta hiriburuko ostatu parean erai-kin bat erosi zutenean proposamena egin zien laborari horiei berei: zergatik ez ireki hurbileko ekoizleen saltokia bertan? “Motibatuta zegoen laborari talde bat elkartzeko hasi zen 2022an, denda nola sortu pentsatzeko”, adierazi du Amaia Costa proiektuaren animatzaileak. Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkartearekin harremanetan jarri zen laborari taldea segituan, elkarteak Iparraldeko antzeko proiektuetan aurretik esperientzia bazuelako. Bi urteko bidearen ondotik, abenduan ireki zitu- en atea Xüxenka dendak.

ZUBEROAKOA ETA JASANGARRIA

Proiektuaren bultzatzaileak egin duten bi urteko prozesua hiru fase nagusitan banatu da. “Lehen puntua zer nahi zuten zehaztea izan zen, zein diren proiektuaren baloreak eta irizpideak, eta taldea egitea, kolektiboki ontsa funtzionatzeko”, dio Costak. Zuberoako hamaika etxalde elkartu dira denda kudeatzeko taldean, baina haien proiektuez gain, beste hogeit bat etxaldetakoak ere eskaintzen dituzte gunean. “Etxe ekoizlea izatea da ados-



tutako oinarrietako bat, alegia, eraldaketarik bada, ekoizlea bera izatea bere lehengaiak transformatzen dituen”, azaldu du.

Proiektuko kideak Zuberoako etxaldeak izateaz gain, kasik denek labelen bat ere badute. “Idoki sormarka barruan daude batzuk, beste aintz ekoizpen biologikoan ari dira, edo EHKolektiboko kide dira...”, dio animatzaileak. Sasoi-

errespetatzea eta animaliak kanpoan haztea ere izan dira irizpideak, baita giza neurriko etxaldeak izatea ere. Behin proiektuaren oinarriak eta baliok zehaztuta, dendaren bidegarritasunari begirako azterketa ekonomikoa egitea, alde juridikoa lantzea eta Mauleko eraikina egokitzea izan ziren hurrengo faseak. Alokairuan hartu dute gunea.

ABENDUTIK IREKITA

Dendako txandak laborarien artean bete dituzte abenduan, baina urtarriletik aurrera denbora erdiz langile bat ere ari da Xüxenkan. “Asteartetik larunbatera irekitzen dugu saltokia, goizetan”, adierazi du Costak. Laborariei haien produktuak modu zuzenean saltzeko aukera ematen die dendak, eta kontsumitzaileari, berriz, bertako produktu jasangarriekin erosketara saskia betetzeko. “Barazkiak eta fruituak, txerriak, axuria, ahuntz haragia, esnekiak, eztiak, erreximentak eta sendabelarrak...”, denetik dute Mauleko dendan.

Bi hilabeteko ibilbide laburra izanagatik, erantzun ona izaten ari da proiektua, eta pozik daude bultzatzaileak. “Gerora, proiektua abiatu duten laborari-ek gogoan dute animazioak antolatzea eta pedagogia egitea, baina pixkanaka doaz. Momentuz, dendan zentratuta dago egitasmoa”, adierazi du. ●

POMADA BANDA

Eraikitzen ari garenaren definizio bat

Bost emakumez osaturiko literatur eta musika banda da Pomada. Lehenbiziko oholtza gaineko emanaldia sortu dute, *Maitaleen hiztegi baterako zirriborroa* deiturikoa, poesia eta musika nahasten dituen. *Irlak* berba dute abiapuntu. Emanaldietako baten lekuko izan gara, Atxondoko Arrazolako Amillenan, Bizkaian. Kronika-erreportaje bat da ondorengoa.

 LEIRE VARGAS NIETO  ITZIAR BASTARRIKA MADINABEITIA

lunak guztiz jan du zero urdina, eta eliza ondoko eraikin zaharberrituko leihoek igortzen duten horitasun epela da argi bakarra Arrazolako plazan. Harrizko etxeak atzean duen landa-zatian apenas bereiz daitezkeen negutegien metalezko arkuak, baina sukaldetik jatetxe osora zabaltzen den usain mamitsuak uzta emankorra irudikarazten du nahitaez, baita neguan ere. Elikadura burujabetzaren eta kultura eraldatzailearen —kulturaren ulerkera zabalenean— alde egiten duen proiektu autogestionatua da Amillena. Hemen, jakiak metro batzuk haragoko lurretik platerera doaz zuzenean, barra ondoko sukaldetxotik igarota. Edo inguruko ekoizleen ortuetatik hormako apalategietan apailatutako kontserba-poteetara. Piperrak, ezta eta gaztak. Artisau-garagardoak eta zukuak. Gaurko menuan: oilasko- edo barazki-enpanadak, perre-

txiko, tipula eta kalabazakoak. Etxeko orean batuak. Eta, noski: poesia.

Aurtengo *Plazerkekeriak* zikloan lehenengo emanaldia dugu hau, Lizar Begoña, Elena Olave eta Eva Pérez-Pons poetek, eta Andrea Plaza eta Amaia Villanueva musikariak osatutako Pomada Bandaren eskutik. Emakumeak zein sexu-genero disidenteak diren artistentzako plaza da *Plazerkekeriak*. Sarrerarik ez da kobratzen: finantzaketarako metalezko potea pasatzen da eskuz esku, eta zikloaren izena dararmaten aterkiak ere badaude salgai. “Ez oso onak, baina maitasunez eginak”, kooperatibakide baten berbetan. Hemen gauzak horrela egiten dira: zintotasunez eta apaltasunez, ekintza txikiak elkarren ondoan jarrita euri-jasen aurrereko babes izan daitezkeela jakitun. Eta, halakorik lortzen ez denean ere, maitasunez.

Hala hartu du elkar gaur ikusi, entzun eta dastatzera hurbildutako jendeak ere: asko ezagunak dira eta sartzean barruan zeudenak besarkatu dituzte, edo urtea zelan hasi duten galdetzen diote elkarri, eskua bestearen besoan paratuta. 30, 40, 50 urte bueltako lagunak; baita 60tik hurbil egongo den baten bat ere. Urkilak irregularki moztutako ile laburrean, txirikordek eta pintzek lotutako adats luzeak, txalekoak, jaka garden deigarriak eta aitari ostutako polo bat. Joan gara azkenean zume eta egurrezko eserleketan jartzen. Hari zenbaitek lotu dezaketen osotasun heterogeneoa gara, platerak magalean eta begirada oholtzatxoan, soseguz bezain adi.

Maitaleen hiztegi baterako zirriborroa du izena Pomadak sortutako lehenengo emanaldi honek ere, hain zuzen. Erandion estreinatu eta Donostiako Feministaldian egin ostean, hirugarren

pasea dute gaurkoa. Bandaren Instagram-meko argazkitik abiatuta irudika daiteke lehenengoa: gitarrak eta sintetizagailu-mahaiek lagundutako musikariak alde batean, poeta eseri bi bestean, eta hirugarren bat oindun mikrorra hurbiltzen. Gaur, ordea, beste era batean hartu dute oholtza gorputzek: alde banatan daude musikariak, poeta bi eszenario ertzean jarrita, eta hirugarrena haren erdian, zutik eta mikrofonoa eskuan.

“Erandon ez genuen arretarik jarri oholtzan egoteko moduan”, azaldu digute emanaldiaren aurretik izan dugun elkarrizketan. “Oso estatiko geunden, eta beldurra geneukan jendea aspertzeko, baita geu ere”. Ainhoa Artetxe aktoreari eskatu zioten laguntza mugimendua landu ahal izateko, nahiz eta antzerkira gehiegi hurbiltzeko asmorik ez izan.

Mugikorra du eskuan zutik dagoen gorputzak, eta hitzak pantailatik ahotsera eta ahotsetik bozgorailuetara doaz. Irekiera: maitaleen irlara ongiatorria.

“Gaztea zarenean
instituzioetatik datorren
eskaintzak ez die zure
beharrei erantzuten”

Irlaren kontzeptutik abiatuta: kontinentearen nagusitasunetik ihesi, bestelako munduak irudikatu eta eraikitzen hasteko tokiak. Maitaleez ariko baitira, bai, baina *IRLAK* berba izango dute abiapuntu; pluralean, asko baitira, molde inposatuaren zurruntasunetik ihesi, egiteko eta egoteko moduak eta tokiak. Hala esan dute mikrofonotik: “*Mundu extraofizialak daude mundu ofizialaren baitan, bestelako ordena politikoak. (...) Guk, gure irla, maitaleen irla, desglosatu dugu. I-R-L-A-K. Letra bakoitzaren*

atzean dauden hitzetako batzuk berrasmatzera gatoz”.

Monique Wittigen eta Sande Zeigen izen bereko liburua izan zen emanaldia sortzeko lehenengo hazia, Iñigo Astizek jaurtitako amuari so; Astizek proposatu zien jendaurreko pieza bat egiteko Erandon. XX. mendeko filosofo trans-feminista izan zen Monique Wittig, eta Euskal Herriko egungo pentsamenduan ere badu eraginik, batik bat, Lisipe bildumaren baitan euskaratutako haren *Pentsamendu heterozuzena* saiakera dela-eta. Lesbianismoa emakume kategoriatik ihesbidetzat jo, eta generoaren aboliziorako gakoak proposatzen ditu lanak.

Wittigek haren maitalea zen Sande Zeig zinema-zuzendariarekin elkarlanean idatzi zuen *Brouillon pour un dictionnaire des amantes* oparitu zion Pomadako kide batek beste bati abuztuan, eta hortik abiatuta hasi ziren irlak itsaspetik altxatzen, letren arteko hitz guztie-



Bost emakumez dago osatuta Pomada Banda: Elena Olave, Lizar Begoña eta Eva Pérez-Pons poetak, eta Andrea Plaza eta Amaia Villanueva musikariak.

kin batera. Hona, orainera ekarri gura izan dituzte joan den mendeko lau esku haiek orain 50 urte idatzitakoak, ordea: “Gure egungo komunitateari, euskal komunitate kuirrari lotutako iruditegia jasotzea ere izan da helburua. Nonbait idatzita gera dadin; nahiz eta ahozko-tasunean galdu, toki bat eduki dezan”. Nahiz eta guztiak jasotzera nekez hel daitekeen, emanaldian iradoki gisara: *“Hiztegi honetan ez daude hizki ezta hitz guztiak ere, oraindik ez ditugulako eza-gutzen, ez ditugulako aurkitu. Maitaleen hizkuntza ikasten eta eraikitzen ari gara”*.

Oholtza gaineko ahotsak hiztegia atontzera erretiratu dira eta bakarrik utzi gaituzte ikus-entzuleok, esnatzen ari den mundu baten soinu-bandak inguratuta. Sintetizagailuak presentzia hartzen doaz goizez argia zabaltzen joaten den bezala. Esploratzeaz gauden lurrarekiko jakin-mina hosto tropikalen neurrira has dadin elikatzen dute.

I

Azkenean apaldu dira oihaneko doi-nuak, eta hiztegia zabaltzeko bidea eman digute: *I* letrarekin, *intimo*, *irain*, *ilusio*. Poetak zutik, elkarriz lepoa emanda, triangelu baten aldeak markatzen. Eta hitzak ere hiru ertz, hiru lengoia desberdinek marraztuak: hots ebakiak eta errima, batetik, arma zorrotz bilakatutako laidoak, bestetik, eta errealtateak eraiki eta deseraikitzeo adina indar duten berbak, azkenik. Hurbile-nekoen aurrean ere mundu zaharraren pisua askatzea lortzen ez duten maitaleak, arauan arrakalak egin ez ezik, liburutegiak, eskolak, tabernak, komunak —*“uf, komunak!”*— okertu nahi dituztenak, ispiluetako islen materialtasuna haztatu nahi luketenak. Ilusioak markatzen du idealerako bidea, baina zer noranzkotan proiektatzen dituzte argiak gure inguruko ispiluek?

Poesiak hitzen askotariko esanahiak berreskuratu edo berrezartzeko aukera ematen duela esan ohi da. Kasu honetan, lehenengo definizioetatik da agerikoa poeten begirada: egitura sozialek ahalbidetzen dituzten hierarkiak argitara ateratzeko tresnatzat dute hizkuntza. Wittig eta Zeigen izenburutik hasita, Pomadako kide batek azaldu digunez: “Nik neuk egin nuen irakurketa zen, maitaleez hitz egitean, liburua ez zela sexu-harremanak partekatzen dituzte-nez bakarrik ari, baizik eta, komunita-

tearen baitan, denak direla maitaleak. Zure alboko bollera maitalea da, baita zure maitalea ere. Horrela ulertzen dut maitasuna, kasu honetan: kolektiboaren maitasuna. Eta oso urruti dago bikotetasunari eta heterosexualitateari lotutako ulerkeratik. Mundu bati maitasuna da: eraiki nahi dugunari eta gauden tokiari maitasuna”.

“50 urteko gizon hetero poetak ez digu ulertuko. 21 urteko marikak bai. Bigarren horrengana heltzea da gure helburua”

R

R letrari ekiteko, lurrera jaitzi da gorputzetako bat. Lepoz lepo eserita utzi ditu beste biak, oholtzaren erdian. *R*-z hasita, *Rummikub*, *Romeo* eta *Rocío*. Maitale zenbaiten mahai-joko kuttuna, maitale arketipikoa, eta izen berezi, partikularra. Jolasa, idatzitakoa eta adiera berria, letra berean. Pomadak iragarri zuen lehenengo ekimenak ere hiru horiek lotzen zituela esan liteke: instituzio eta elkarteek LGTB+ poesia plazaratzeko antolatutako ekimenetan elkar ezagutu ostean, *Ez gara inor* topaketa-eguna antolatzea erabaki zuten, literatura haien neurrira bizi eta beste gorputz eta asmo batzuei tokia egiteko bideen bila. Mejillón Tigre poesia taldekoekin elkarlanean aritu ziren, gainera.

Orduko helburua “lagunartean eta modu zikinago edo informagoan” ari ahal izatea zela dio Pomadako kide batek; “eta jendea ezagutzea”, besteak. “Poesia egiten duen jendea, eta argitaratu ez duena, batez ere”. Bilboko 7katu gaztetxean egin zen, joan den apirillean, eta izan zuen erantzunik: goizeko tailerrak jendea bildu eta arratsaldeko jendaurrekoan parte hartzera bultzatu zituen. “Jendeari lekua eskaintzea bera esanguratsua izan zen: oholtzara igotzeko aukera izatea idazle izan gabe, inor izan gabe —hortik zetorren izena—. Jendeak eskertu zuen”. Idazle etiketa mugarriz jakinak igaro eta eska-

kizun zenbaiti erantzutearekin lotzen baita nahitaez. Modu desberdinean, baina poesiari esleitutako funtzio berbera betetzea bilatu zuten orduan ere: “Literatur sistemako kodeak gure egin eta berresanahitzea”. “Izan ere, zer da poesia ona? Ez genuen logika horretan funtzionatu nahi”.

Ez litzateke izugarrikeria Pomadaren asmo hori korronte zabalago baten baitan kokatzea. Azken urte pasatxoan, agertu dira Euskal Herriari Behe Banda, Izanen gazte aldizkaria, eta Azpimarra moduko irakurle klub autogestionatuak. Guztiak ere gazteek sortuak, eta ildo partekatua oinarri: literatura merkatu-logikatik at bizi eta arauzko kalitate-parametroak zalantzan jartzeko asmoa. Andre edadetuz beteta irudikatzen ditugun liburutegetako irakurle klubekin kontrastea egiten dute. “Uste dut gaztea zarenen instituzioetatik datorren eskaintzak ez diela zure beharrei erantzuten”, azaldu du Pomadako kide batek, “eskaintza oso ortodoxoa delako, jakin barik egina, eta salbatzaile-konplexu batetik, gainera”. Ez da harritzekoa proiektu hauetako gehienek begirada kritiko eta politizatua ere partekatzea, hortaz.

L

Amillenako goxora itzulita, hiru poetak ditugu aurrez aurre, oholtzan zutik. *L* letraz, *lotsa*, *loria* eta *luma* definitu dituzte. Maitaleen irlan ez ei dago lotsarik: antzinako zerbitatu da, desikositakoa, hari aurre egiteko erabili ohi zituzten dantzak, jolasak eta jakiak oroitzen diren arren oraindik. Lotsa gainditzean baino ez da agertzen, agian, plazer fisikoak dakarren loria hori, maitaleek bizitzaren ertzetan aurkitu eta aldarrikatzen hain ondo dakitena.

Horrekin batera, lumaren hainbat definizio jaso dituzte. Baita Euskaltzaindiak ezagutzen ez duen azken bat ere. *“Gure maitaleei lumak hazten zaizkie munduratu eta inguratzen diena gustuko ez dutenean”*. Hizkuntzaren ertzetan bilatuta aurkitzen baitituzte maitaleek beren berbak.

A

Beste bi gorputzek ezkutatuta emango dizkiguten *A* letraz hasitako hitzak ere aurreko horretara datoz: ahaztu ohi dugun *atzea*, hegoaldeko kantei ostu diegun *amante*, eta txakurtzen ausar-



tzen garenean askatzen dugun *animalia*.

Oholtzatik kanpo ere, Pomadak honetan sakondu baino ez du egiten. Izan ere, gustuko dute Interneteko hizkera, eta haien Instagrameko kontuan, batik bat, KPMZ, *uwu* eta *sssuport poetak*, *polissia gorrotatu* moduko lemak topa daitezke. “Bada baita ere beste giro batzuetan oso modu serioetan egin behar duzulako berba. *Berria-n*, *Berria-ko* estilo liburuari jarraika. Unibertsitatean... Eta, ba, hau gure proiektua bada, goazen berba egitera egiten dugun moduan”. Guztioi inposatu arren, batzuen baina ez den hizkuntza zikintzeko beldur barik, alegia. “50 urteko gizon hetero poetak ez digu ulertuko. 21 urteko marikak bai. Eta bigarren horrengana heltzea da gure helburua”. “Eta gustatuko litzaidake entzutea 50ekoak dioela poesia perbertsatzen ari garela”, egin dute barre. “Esan dezaten ez dakigula euskaraz. Hori nahi dut nik”. Barneratua dute irainaz birjabetzeko dinamika. Sindudabarik.

K

Azken letra. *Klonopina*, farmazietan erosten den bake-pilula, *kakaren* eta haren jariatokiaren aldeko aldarria, eta maitaleen bihotzeko animalia: *kattua*. Bizkaiko kantu zahar eguneratu eta guzti. Hirurak oholtza erdian eserita, bata erdian, aurreraxeago, eta beste biak alboetatik adi, begira. Gorputzak, poetak, maitaleak. Begirada konplizeak eta irribarre gurutzatuak. Musikak hartu du gela berriz eta hor geratu dira, hirukoa osatzen, azken 45 minutuetan elkarren mesedetan, elkarrreraginez, elkarrekin mugitu ostean, honezkero gorputz bakar, hiru banako bezainbeste.

Musika isildu eta segundo batzuk irau du sorginkeriak. Azkenean, zutitu dira gorputzak eta egin dute bidea txaloek. Oholtzan, barreak eta elkarren bizkarretan paratutako besoak. Baina publikoa ez da bat-batean altxatu. Patxada eskatzen du berba eta ñabardura berriei hiztegia tokia egiteak. Lur honetan nekez biltzen dugun, baina maitaleen irlan zuhaitz eta hondar artean hazten den patxada, txera eta epeltasunarekin batera. Gaur Amillenara arrastotxo bidali digute gutun-azal batean. Ahots ezagunaren xuxurla heldu zait atzetik: “Hemen nengoela ere ahaztu zait”. ●



Hitz geqidunak

JOKOA, OLGETA ERAZ	PUTAKUME LEHEN MUSIKA NOTA	ADI, ERNE	HODEI TORRES / ARGIA CC-BY-SA 			HARAGI NAFARROAKO HERRIA	KANDELA LUR BIGUNA ETA MALGUA	# IKURRAREN IZENA ATERKI, GUARDASOL
ELKARTU JADANIK						PERTSO- NAIAREN ABIZENA LOALDI		
	EZ EME AHAZTEKO JOERA DUENA		BETEALDIA, OKADA BEHARBADA		BIZIKI MUIN			
ARMA ZORROTZA ALEAK BEREIZTEKO LANABESA						ASTUN LOHIA, SATSUA		
			PERTSO- NAIAREN IZENA FUNTS (AL- DERANTZIZ)				HERRI HIZKE- RAN, ETA HALAKOIA DELA USTE DENA	
MEA	BUKAERA HITZARMENA				MUSIKA BIZKAIKO UDALERRIA			MUSIKA OBRA
						METALEZKO KAPELA BILGOR		
EUSKAL FONEMA NAFARROAKO UDALERRIA		ONTZAT EMAN GAROA, IRATZEA					KAMISETA MOTA APAINGARRI TXIKI	
			SINADURA KRIPTONA- REN IKURRA					BIGARREN BOKALA ... EGIN, ERABAT ASE
ZER TOKITARAKO LERRORALDE					OPTIMISTA FLUORRAREN IKURRA			
						EMAKUME BATI HIKA		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	7			1				9
	6				9	1		4
	4		6	5				3
			5		8	6	1	
6			1	3		4		
		4			6		7	
2	5		7	8				
			4		5		6	8
4	9		2		3		5	1

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Ergela.
- Ados.
- Kontsonante ez dena.
- Oratuz.
- Mapa bilduma.

EBAZPENAK

- BARBOA
- AKORT
- BOKAL
- ORAKA
- ATLAS.

8	7	2	3	1	4	5	9	6
5	6	3	8	7	9	1	2	4
9	4	1	6	5	2	8	3	7
7	3	9	5	4	8	6	1	2
6	2	5	1	3	7	4	8	9
1	8	4	9	2	6	3	7	5
3	5	6	1	9	8	7	4	2
2	1	7	4	9	5	2	6	8
3	1	7	4	9	5	2	6	8

5x5:

P	A	R	V	A	R	G	R	A	F	O	N	O	K	A
R	O	N	O	K	A	F	O	N	O	K	A	F	O	N
L	I	K	I	N	I	Z	E	N	E	P	N	E	P	E
T	Z	T	O	N	O	T	S	I	T	I	T	O	P	O
M	I	N	V	A	V	L	V	A	K	V	I	N	I	O
B	H	V	E	G	A	R	V	I	Z	I	T	A	V	A
S	V	S	T	A	V	K	A	V	I	T	O	L	I	L
V	A	V	R	O	B	I	Z	I	R	O	I	R	O	R
M	D	O	T	U	X	A	V	B	A	R	E	R	V	A
J	I	P												



Gutaz ari dira

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA  HIL DA LABOA

Iazko irailaren 20an izan genuen lehen aldiz musika kolektiboaren berri, sortu berri zuten sare sozialeko profilean: “Hemen da Hil da Laboa!”. Zuian (Araba) eta *Zuk Zeuk Egizu* filosofian ardaztuta, artearen merkantilizazioaren aurka eta tokiko eszena autogestionatuaren alde.

Proiektua ezagutzeko gogotsu, domeka eguerdian abiatu gara bertarantz. Ordubiak jotzear direla ekin dio Lizarrako Maddi edo Emeadedei bakarlariak. Bakarkako proiektua hasten eta hazten dihardu, eta Nafarroatik kanpoko oholtza batean lehen aldia duela aipatu du emana diaren hasieran. *Amaitasuna* (2024) lehen lan luzean batu dituen zazpi abesti, rap esperimentu bat eta Federico García Lorca, Oskorri eta Jorge Drexel propio eginda sortutakoak partekatu ditu gurekin. Eta zer nahi duzue esatea, *ni ez naiz dena ondo azaltzera iristen*; gonbidatu zuenera edo joan hurrengo zuzenekora. Maitasun- eta amaiera-gutun soinu hori zuzenean entzun eta ikustea esplikatzan zaila den esperientzia baita.

Deskantsutxoaren ostean, disko-jogailuan Itoizen abesti bat jarrita eman

dio hasiera zuzenekoari Beñat Bidegainek, abenduan kaleratutako Mahl Kobat bakarkako proiektuaren laugarren azalberritze honetan. *Zelan apurtu pertsona bat* (2024) diskoa errenkadan jo aurretik, momentuko kokapena neurtzeko, Rodrigo Amaranteren bertsio bat jo du lehenik. Eta ostean etorri da auto-suntsipenaren kontakizun gorputzu eta musikatua. Soiltasunetik adierazitako tristuraren narratiba bat. Ahotsaren, gitarraren eta gorputzaren elkarrekintzan, norbere buruaren kontra egitearen bizi-penak hartzen dituen formak dira kantuok; norbere buruarekin harremanean, besteekiko harremanaren ezinean, haserrear, inpotentzia eta minean.

Kasu honetan ere zail zait zuzeneko kontakizun, zurrunbilo propioan murgilduta egon nintzeneko pentsamenduen oihartzunek lausotu baitidate begirada. Gainera, garai hartan bidelagun izandako gustuko bi poema abesti bihurtuta jasotzeak eragindakoa kosta egiten da azaltzea. Ziurrenik, pentsamendu honetan bil daiteke: nitaz (ere) ari da. Eta gutaz. Zuiako gaztetxean, oholtzatik ha-

EMEADEDEI + MAHL KOBAT

NOIZ: otsailaren 2an.

NON: Zuiako gaztetxean, Murgian.

rago ere, malco bat baino gehiago ikus baitzitezkeen.

Bueltako bidaian, *planazo* bat izan dela baieztatu diogu geure buruari. “Kontzertu batera negar egitera?”. Harriduraz galdetu didatenentzat erantzun bat ere bai baita honakoa. Simon Frith irakurria da gure bizitza emozional pribatu eta publikoaren arteko erlazioa administratzeko funtzioa duela musikak; emozio propioei forma, ahotsa eta soinua emanez, adierazpen pribatuen forma publiko bihurtzen dela. Mahl Kobaten zuzeneko proposamena, kolektiboan eta publikoan norbera lasai apurtzeko espazioa sortzea da. Eta horrek eskatzen duen mimoa, errespetua eta zaintza ez dira errazak aurkitzen. Ezinbestean behar ditugu, ordea, aurreranzko etengabeko ihesean aritu beharrean, zurrunbilo propioetara garamatzaten soinu eta berbak. Baita haiei kolektiboki eusteko leku goxoak ere. Indibidualizazio garaiotan, tristurak ere har dezan behar duen lekua emozioen adierazpen kolektibo zilegien zerrendan. ●



LIBURUA

Errugabetasuna frogatzen



EIZIE

SEGUNDO ERABAKIGARRIAK MANU LÓPEZ GASENI

ELKAR, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE

Nobela labur hau irakurtzen hasi eta harrapatuta sentitzen zara, eta horretan badu zerikusia idazleak ezarritako erritmo bizi eta azkarrak. Lehen hamar orrialdeetan izango dugu 16 urteko protagonista gaztearen berri, jakingo dugu atentatu bat gertatu dela, jihadistek egindakoa itxuraz eta nobelako protagonista, Euskal Herrian jaiotako mutil jatorri arabiarrekoa, susmagarritzat joko dutela. Badakigu ere errugabea dela (“baina ezin du frogatu”) eta Polizia konbentziturik dagoela erruduna dela... harik eta emakume misterioitsu bat (“aingeru guardakoa”) agertu arte.

Suposa daitekeen moduan, atentatua argitzea da nobelako helburua, Karim gazteak bere errugabetasuna frogatzeko polizia emakume misterioitsuarekin eginitiko ikerketa. Tartean, baina, irakurleak migratzaileen bizimodura eta protago-

nistaren kultura eta ohituretara hurbiltzeko parada ere izango du; jatorrian oparotasuna utzita amestutako paradisura eginitako bidaiara eta sufrimendura. “Ironikoki, neke handien ondoren usitezko paradisura iritsi zirenean, Zahira, ordurako berriro haurdun eta oso ahulduta, Karimez erditu eta zazpi egunera hil omen zelako”.

Karimek, gainera, badu sekretu bat: amaren sabelean zegoela gertatutako zerbaitek eragina du mutilak etorkizun oso laburrean gertatuko dena ikusi ahal izatean. Eta, hain zuzen, kontrolatzen duen ahalmen horrek bizia salbatu zion atentatu egunean... susmagarri bilakatu. Karim, Bakarne emakume polizia misterioitsuaren laguntzarekin, atentatuaren egileak nortzuk diren eta atentatuaren arrazoia zein den argitzen saiatuko da hurrengo zazpi egunetan. Hain

zuzen, jihadarekin zerikusi gutxi duen atentatua argitzen.

López Gaseni saiatu da nobelan hainbat kontu azaleratzen, orain arte migratzaioaren egoera aipatu dugu baina aberatsen diru nahia, politikarien jokabidea edo gazteen harremanak bezalako kontuak ere agertzen dira, hori guztiori irakurketa arin eta bizkor baten bidez. Eta arintasun horretan badute zerikusirik pertsonaien karakterizazioak, deskribapenen eta elkarrizketen neurriak edo gertakarien kontakizun biziak.

Azken finean, gazte eta helduentzako nobela labur honek horixe lortzen du, gizartea hobeto ezagutzeko, gizarteaz gogoeta egiteko lan erakargarria izatea, eta, aldi berean, arin eta gustura irakurtzen den nobela poliziakoa, hasi eta amaierara arte eramaten zaituen kontakizuna. ●



MUSIKA

Bizi aske



ARRAIO IRRATIA

IKER BARANDIARAN

Nik ez nioke talde bati Braulio izena jarriko; eta seguruenik inork gutxik hasiko luke lan bat sei minutuko iraupena duen kanta batekin. Baina hauei parra die eta horri esker jarduten dute hain aske eta sortzen dituzte halako kantak.

Ondarroan kokatzen da Braulio hirukotea, eta esan dezakegu horren sustriak iraganean Ondarroa eta Eibar artean sortutako Norman taldean dau dela, rockeroentzat eroegia eta eroentzat rockerogia zen proiektu eztagarri eta liluragarri hartan. Hiru disko luze argitaratu zituzten, are eta gehiago probatuz eta gozatuz, eta dozenaka emanaldi gogoangarri egin zituzten.

Horren ostean, Kepa gitarra-jotzai-

leak bultzatuta, Braulio izeneko muntro honi eman zioten forma haietako batzuek; eta, gerora, pandemiak eta distantziak zailduta ondarrutarrez osatutako talde 'itsaskorra' bihurtu zen, gaur arte. Haien estraineko lanak, *Braulio* izenekoak, zur eta lur utzi gintuen, indarra, erritmoen aberastasuna eta –orain ere bai– *skizo* puntu askea izateagatik. Bigarren lanak, *Lur azpira itzuli*-k berretsi zuen asko disfrutatzen dutela konposatzen, kantak deseraikitzen eta garatzen eta abizenik gabeko kantutzarrak erditzen.

Orain, hirugarren lanarekin, *Bidai on bat*-ekin, datoz. Lau pieza aberats, jostari erabat, amorragarri tarteka eta dibertigarri, bizi dugun gizarteari garratzat-



BIDAI ON BAT

BRAULIO

AUTOEKOIZPENA, 2024

sunetik trufa egiten diotenak. *Ehiza* da instrumentalki aberatsa, oso jostaria, Mike Watt beti presente, tempo erdiak eta distira ere gordetzen dituen, nahiz eta post-rock kiribildua eta intentsitate handiko noisea ere baduen (hainbeste gordetzen du bere baitan). *Bidai on* Biarri ere lekua egiten dion errepideko kontrako norabidean doan autoa, existentzialista bezain kritikoa, eskizoa eta jostaria erabat. *Sare antisoziala*, aldiz, deseraikitako punk-rocka, tempo erdi eroak, Ama Say post-hardcore moztrotuta eta kantu zerutiarrak. Azkenik, *Bizi nahi* da Alvin-ren Sheelac rockaren pasabidetik barrena Münsterland eta Spazztic Blur-ekin topo eginda surf iluna dantzatzen bukatzea. ●

Entzutegintza

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Arretaz irakurri nuen joan den igandean Amagoia Mujika Tolaretxipik *Berria*-n Imanol Pradales EAEko lehendakariarekin izandako elkarrizketa. Hainbesteko arretaz, ezen galdera-erantzun guztien artean, begietara salto egin zidan kontu txiki-txiki bat –atomo bat, agian are txikiagoa den zeozer– izan bainuen buruan bueltaka egun osoan.

“Entzuketa prozesu bat egitea inportantea da une oro agintean gaudenen artean”, dio Pradalesek, bigarren galderari erantzunez. Eta ni hitz horretan, “entzuketa”, egoskortuta. Azkenaldian nonahi baitago: berdin da alderdiaren kolorea edo usaina, ez du zertan alderdia izan ere, mugimendu sozialak, enpresak, kirol taldeak, gutxien espero duzun lekuan, hop, entzuketa prozesu bat agertzen da. Eta izorratzen badizu, pazientzia handiko aurpegia jarriko du. Badaki zure amorrazio gorriena ere entzun egin behar duela.

Beldur naiz bizilagunen komunitateko presidentea ere ez ote den hasiko horrelako zerbait proposatzen, portalean agertu diren txakur-kakek eragindako tentsioak baretzeko. Baina harira: uste nuen Yolanda Díazek jarri zuela modan entzuketa-prozesua izeneko traman-kulu hori, sei hilabetez Espainiako Estatuan barrena bibalapepa ibili zenean Podemosen gaisetarik pertikarekin salto egin eta Sumar antolatzeke. Bila eta bila, atzerago ere aurkitu ditut ordea entzutegintzaren hizkera lehen lerror... barka, erdiguner... barka, egikarit... bueno, esan nahi duzuen moduan, kontua da PSOEko Alfredo Perez Rubalcabak ere “Entzun, egin eta azaldu” eslogana erabili zuela 2012ko hauteskundeetan, naftalina usaina gaisetarik kendu nahian eta, bide batez, M15aren belaunaldiari esanez belarriak zabal-zabal zeuzkala.



A ze belarriak, izan ere, Rubalcabarenak. Entzuten zuen, bai, entzuten zenez. Espainiako Barne ministro zen garaian gertatu zen, Donostian. Atentzioa deitu zidan, eskolatik ezagutzen nuelako abisua jaso zuen gazte hura: bere autoa kea botatzen ari zela muturretik, hori esan zioten. Jaitsi zen, ikusi zuen kotxea lasai ederrean pipa erretzen ariko balitz bezala. Eta ikusi zuen paratxokean zulo txiki bat. Eta zulo txikitik begiratu, eta antena. Eta antenatik tira, eta ibilgailua nondik nora zebilen kontrolatzeko aparailu bat. Urte haietako notizietan ohi-koak ziren horrelakoak. Pisu bateko sofa azpian agertu zen mikrofonoa. Ezker abertzaleko asunturen bateko egoitzan ezkutuan instalatutako grabagailuak.

Hauetako batean estreinatuko dute horrelako lanetan ibiltzen ziren polizien lana erromantizatuko duen telesailen bat edo, *La infiltrada*-ren estiloan. Baina bitartean, entzuketa, orain, estatu-espioitzaren lexikotik irten eta jarduera demokratikoagoetara pasa da. Esango nuke

urte loriosak bizi izan zituen parte-hartze prozesuaren digieboluzio moduko bat dela; eta haren lehengusu propioa den “arazoak ikusarazteko” dinamikarekin batera, izango dela hamarkada hau markatuko duen fenomeno sozzzzZZzzzzZZZZ (uiba, denbora asko pasa dut lo?).

Aber, ondo dago e, ez gaizki ulertu. Ni entzuteko prest dagoen jendearekin topera. Baina, batetik, orain denok daukagu 24 orduz esaten duguna entzuten duen telefono-espioia instalatuta eta, beraz, monopolio teknologiko inperialistek alor horretan 31 eskutik daukate; beti izango dira eraginkorragoak edozeinek antolatu dezakeen edozein entzuketa prozesu baino. Eta, bestetik, igual kontua jada ez da entzutea, beste zerbait baizik. Nik zer dakit: jendea bakean uztea, adibidez, hori egin ahal izateko behar diren baliabide guztiak eman ondoren. Agian programa politiko gisa oso basikoa da, baina aizu, ni esan gabe ez naiz geratuko, orain denak entzuteko prest daudenez. ●



BioLur
Gipuzkoa



**LURRA
HERRIARI
DEKA**


Kamiseta **22 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

 **ARGIA**

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik
gorako erosketetan.

